

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Otsailak 23, 53. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

J. HERRASTI
Fagor indartu
nahian



Joseba

LORAMENDI



KIROLAK

EGUN BATZUETAN BAKARRIK FAMILIA OSORAKO ZAPATILAK



ARRASATE TELEBISTA

Frogatan bada ere, honez gero hasi gara emititzen. Hilabetez edo, horixe egingo dugu, frogatan emititu, Arrasateko etxe guztietan seinalea ondo hartzen dela jakin arte. Hasieran albiste saioak bakarrik emango ditugu eta, asteak aurrera joan ahala, programazioa osatuz joango gara.

Badakizu non aurkitu

ZURE TELEBISTAREN 23. KANALEAN, UHFen

Oharra: Monokanaldun antena duzuenok 23 kanaleko anplifikadorea jarri beharko diozue, ATBren seinalea jaso ahal izateko. Badaezpada ere, kontsulta ezazue zuen antena jartzaillearekin.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)

Azoka kalea 1,

20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza

Bego Zubia

Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri

Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontsellua: Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de

Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele

Zuazubiskar, Pabri Montero,

Juan Martin Elexpuru, Eukeni

Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo

Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus

Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo

Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea,

Joseba Vallés, Karmelo Uribarren,

Iñaki Aranburu, Hankamotz,

Maite Toledo, Atalataikoan.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 6.100 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta erizien erantzunkizunik.



Izan ala ez izan (futbola)

Britaniarrek futbola asmatu eta lasai asko geratu omen ziren, mundu osoko giza egituran kirol horrek izango zuen eragina nolakoa izango zen susmatu gabe. Futbolaren uhin eztabaidakorra noraino iritsiko zen jakin izan balute, dagoeneko Maies-tate Dohatsuaren diru kutxak gainezka izango lituzkete, egile eskubi-deak direla eta.

Diodan aurretik, futbola goi mailako espektakulutzat daukadala. Jokalari eta ikusleek erabateko grinaz bat dagite, bolatxoa atean zeinek maizago sartzen diharduten bitartean. Baloia, fisikoki, berdeguneko antzezleri batek sartu beharra den arren, harmailetakoek zerikusi haundirik izan dezakete ekintzan, euren oihu, karraxi, kantu, mehatxu, irain, txalo edota bortizkeria direla medio. Ez du, orain arte behintzat, inongo eta inoizko antzerkigilek futbola partidu baten gisako gogoleherpenik sorterazi. Sofokel, Shakespeare, Moliere, Brech, Pirandello, Beckett, eta abarren obrak txiki geratu dira, ikuskizunik bateragarriena ei den futboleko gidoi hunkigarriaren ondoan

Eta komunikabideetako laguntzaz, zer esan? Horixe bai asmaketa paregabea! Lehen, antzezpenean zentzu guztiak ipini arren, beti gera-

tzen zitzaigun zalantzaren bat: "Penalty izango ote zen?", "Eskuaz joko al zuen?"... Orain, ordea, dena garbi zaigu, telebistari esker. Lehen, Iturripe zaharrean, "Arbitrillo, al mala-to!" oihukatzen genuenean (1) barruko kezkek hartzen gintuen, oker egongo ote ginen beldur. Zalantza guztiak ezabatu dituzte komunikabide modernoek, duda-mudako jokaldiak eta marrazaina nahiz arbitroaren hankak sartzeak "moviola"ren bitartez behin eta berriz argitzen dizkigutelarik.

Beraz, komunikabide aurreratu horiei zor diegu zelai eta hamailetako aktoreek, beltzez jantziriko pertsonaia tetrikoari luza diezaizkiogun astakerien multzoa. (Izan ere, edukitzekoak eduki behar direla futbol arbitroa izateko, ezta?)

Eta espektakulua amaitu ondoren -antzokietako antzerkiak gertatzen ez den bezala- lantoki, eritegi, autobus, eliza edota etxe-giroan jarrai dezakegu igaro berri den emanaldiaren bikaintasunez gozatzen... hurrengo igandeko obra berri batek aurrekoa ahanteraz diezaigun arte.


(1) *Aretxabaletan, euskaldunagoak omen, "Errekara, errekkara!" itxaropentsua eskaintzen zioten partiduaren epaileari.*

Josemari Velez de Mendizabal

UGARAN
jatetxea

Garagaritza auzoa - t/797658 Arrasate

**enpresa
bazkariak
eta famili bilerak**



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa:799457

**GIROA
APOTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 64

KAJOI TABERNA

erdiko kale 22
tfnoa: 79 32 27

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

**ORTZI
erretegia**

Angiozar auzoa
Tfnoa: 76 22 68
BERGARA

**Arrasate Pressen ere
diskriminazioak?**

Pasa den udazkenean bailaran garatu eta beranduago hezurramitu diren kanpaina biren oihartzunak amatatzen doazenez, aurrez sua haitzatea izango zen eta, hona hemen Arrasate Pressen jokatzeko era desgokiaren gainean neure kritika:

Jakina denez, arestian aipatutako kanpainok, Euskararen belaunaldien arteko transmisioa sustatzekoa, "Euskara hau janaria" lemapean, eta Alfabetatze kanpaina dira. Lehena Deba Behe zein Deba Garaiko Udal guztiek antolatua eta bigarrena Deba Garaiko zenbait Udal Euskaltegik.

Gaia kokatu ostean eta ez batari ez besteari garrantziaren izpirik kendu barik, ez dut ulertzen aldizkari honetan gaiarenganako tratatze era eta eskaini zenien espazioaren aldea; kontutan edukita biak euskaldungoari (lehena erdaldungoari ere) zuzendurik zeudela eta lurralde-markoaz aitzakiarik ez daitekeela jarri.

Transmisio-kanpaina berri labor moduan agertu zenuten osterantzeko hedakuntza-artikularik egin barik, alfabetatze kanpaina ostera, notizia garrantzitsuen gisan argitaratuz.

Desproporzio horren arrazoiak jakin nahian erredakzio kontseiluaren erantzunaren zain gelditzen naitzelarik, har ezazue neure agurrik beroena.

F. Muniozguren

**Karmelo Bergaretxeri eta
Pakori Skizaleak (Besaide)**

Eskutitz hau hasteko esango dizut Besaide Mendizale (ez Eskizale) Elkarteko bazkide bat naizela.

Nire galderak hauexek dira:
Zergatik zuek antolatzen dituzuen aste bukaerarako bidaiak elurretara, Besaide Mendizaleko bazkide izanik 500 pta. gehiago pagatu behar dudan, skizale talde famatu horretan bazkide ez izategatik.

Uste dut Besaide Mendizale elkarte barruan gaudenok kuota berdina izan beharko genuela, zuek moduan 6.800 pta., hain zuzen.

Nire ustez oso gaizki jokutzen ari zarete eta uste dut Besaide Mendizale Elkarte horretan soberan zaudetela.

Agian zuen aldetik Besaidetik kanpo montatuko bazenute zuen erroilo hori uste dut askoz hobeto joango zaizuela.

Zuen erantzuna jaso nahi nuke.

*Besaide Mendizale Elkarteko
bazkide bat*

**Patinetearekin ibiltzeko behar
dugu tokia**

Gu, orain, Bide-Hezkuntzari buruz lan bat egiten ari garenez, konturatu gara patinetearen arriskuaz eta auzoan ez dagoela patinetean ibiltzeko leku apropos askorik.

Errepideetan autoak daudenez, ezin gara ibili eta espaloietan jendea dabilelako ere ez. Gure ikastetxekeo patioan ere ezin da, harritxoak daudelako eta edozein momentutan jausi egin gaitezke. Kiroldegi ondoan dugun ranpak, ez du gauza askorako balio.

Beraz, non ibiliko gara?

Uste dugu auzoetan beharrezkoa dela pista berezi batzuk jartzea.

Bertan "U" txiki eta handiak, ranpak, green egiteko eta hodiak.

Pista hori ipintzeko agintea duenak, jar dezala mesedez.

Aurrez, eskerrik asko

*San Antolineko 5. Mailako
Ikasleak*


Beste ikus puntu bat

Joan den astean, ikusmirak eraginda, saihesbidera abiatu nintzen Musakola aldetik. Egia esan, inoiz joan barik nengoen eta azken aldi honetan hainbeste berba egin denez bide horri buruz, ba alderik alde ibiltzea erabaki nuen.

Bidea berde ikusi nuen, baina harrigarria egin zitzaidana, alde hartatik Arrasateren ikuspegia Ez txarto ulertu. Arrasate ez da zortzigarren marabila, baina tira, nobedadea izango da.

A. Begiluzea.

Erreferendumak egiteko aukera izateari ondo deritzozu?



Jose Bengoa
(jubilatua)

Beno, nik garbi daukat herrian gastatzen den dirua, herriaren onerako izan behar duela. Erreferendumak horretarako balioko balute ondo ikusiko nituzke.



Maribel Aranburu
(langilea)

Bai, ondo ikusiko nuke. Herri batean pertsona asko bizi da, gazte zahar, etab. eta denek ez dute berdin pentsatzen. Beraz, arazoak konpontzeko bide egokia ikusten dut.



Joseba Zubizarreta
(langilea)

Hauteskundeetan alderdi politikoek beraien programak azaltzen dizkigute eta gure ordezkariak aukeratzen ditugu. Herriak hori errespetatu egin behar du. Edonola ere, gai zehatz batzuetan erreferendumak egiteko aukera izatea ondo ikusiko nuke.



Toni Quiroga
(ikaslea)

Bai. Jendeak herriko bizitzan parte hartzeko aukera izango luke eta bide batez informatuagoa egongo litzateke.

LENIZ

AUTO ESKOLA



LASTER: AUTOBUSA ETA KAMIOIA

ARRASATE - ESKORATZA

Memesa

79 42 22

KOPIOTXOA

*Fotokopiak
Planu-Erreproduzioak
Enkuadernazioak*

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE

SOKOA

Zeharkale estalia Arrasate



BELUN
taberna

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 88 96
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZANTZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------

23 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Calma total" 7 eta 9,30etan. Novedades: "Los dioses deben estar locos II" 10,30etan.
- Haratuzteak:
 - Argazki Rallyko roilo-banaketa. Alkartu elkartearen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerías.

24 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Calma total" 5, 7.30 eta 10etan. Novedades: "Los dioses deben estar locos II" 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Bideo emanaldia. "Polizi akademia eroa". Monterron kultur etxean, arratsaldeko 4etan eta 6etan. Sarrerak 50 pta.
- Haratuzteak:
 - Santxeski exhibizioa: Zaldibar Pilotalekuan, arratsaldeko 5etan.
 - Haurrentzako sokamuturra. Monterron ondoko orubean, arratsaldeko 6etan.
 - Play Back jaialdia. Amaia antzokian, gaueko 10,30etan.
 - Txintzarri taldearekin dantzaldia. Gaueko 11etatik aurrera, Sebero Altuben.
 - Helduentzako sokamuturra. Monterron alboko orubean, gaueko 12etan.
- Goardiako farmazia: S. Español. Iturriotz.

25 IGANDEA

- Zinea: Alai: "La mujer salvaje" 5, 7.30 eta 10etan. Novedades: "Los dioses deben estar locos II" 5, 7,30 eta 10,15etan.
- Haratuzteak:
 - Haurrentzako antzerkia. "Taupada" taldearen eskutik. Sebero Altube plazan, eguerdiko 12,30etan.
 - Eguzki taldearekin dantzaldia. Sebero Altube plazan, arratsaldeko 6,30etan.

- Zezen suzkoa. Gaueko 8,30etan.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola.

26 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "La mujer salvaje" 7 eta 9.30etan. Novedades: "Los dioses deben estar locos II" 7,30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

27 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "La mujer salvaje" 7 eta 9.30etan.
- Haratuzteak:
 - Haurren moztze desfilea. Arratsaldeko 4etan hasita Arbolapetan hasita. Takolo, Pirutx eta Porrotx paila-soek lagunduta.
 - Samasiku fanfarrearekin, musika Biteri aparkalekuan.
 - Dantzaldia. Biteri aparkalekuan, Claque orkestrarekin.
 - Sardinaren hiletak. Gaueko 11,30etan.
 - Mozorro-lehiaketaren sari-banaketa. Gaueko 12,30etan, Biteri aparkalekuan.
 - Hitzaldia. Arantxa Lizasok eskainia, "Gure elikatzeko ohiturak" gaiaren inguruan. Arratsaldeko 4,30etan, Famili eta Gizarte Heziketarako zentruan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua. Sta. Marina.

28 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: Ez dago emanaldirik.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Magdalena.

1 OSATEGUNA

- Mahai ingurua: "Nolako Euskal Eskola Publikoa nahi dugu?". Monterron hitzaldi aretoan, arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerías.

ERAKUSKETAK

- *Pintura erakusketa.* Hilabete honetan zehar, Etxe Aundin, *J. A. Larrafaga* markinarren 20 margo-lan ikusteko aukera.

BERTSO AFARIA

- *Sebastian Lizaso bertsolariarekin.* Martxoaren 2an, gaueko 9,30etan. Izen emateak AED elkartearen edo 79 54 46 Tfnoan. Apuntatzeko azken eguna martxoaren 1a.

IKASTAROAK

- *Osasun eta kontsumo ikastaroa.* Famili eta Gizarte-Heziketarako Zentruak antolatuta.
- *Etxe-apainketa.* Martxoaren 1ean. Emalea, Rosario Garitano, apaintzailea. AED elkarteak antolatuta. Doan. Informazio gehiago AEDn Tfnoa: 79 54 46



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- * *Dortasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- * *Fresatzeko makinak*
- * *Zenbakitzko kontrola*
- * *Mekanizazio-zentroak*
- * *Tornuak*
- * *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61 Posta kutxa 95. Telefax: 798097

BIDEO-EMANALDIA

Polizi akademia eroa

Tokia: Monterron kultur etxea


Eguna: otsailaren 24

Ordua: arratsaldeko 4etan eta 6etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea



“ Sozialistek eskuindar aurrekontu hauei ezetz esaten diegu, auzoei aurrekontuaren %3a bakarrik ematen zaie eta. Eta kirolei %40a. Hezkuntzari aurrekontuaren %4,32a bakarrik eskaintzen zaienean, are gehiago ikastetxe publikoari %1,63a eskainiz, pribatuak %2,69a jasotzen duen bitartean”

(Jose Luis Lana PSOEko zinegotziak azken osoko bilkuran)

“ 250 milioitik gorako erreferendumari buruz egin den planteiamentuarekin, esan nahi nuke ni neu eta baita HB ere, ados gaudela erreferenduma tresna egokia dela demokrazia sakontzeko eta abar, baina iruditzen zait erreferenduma zentzua duela jendeak eskatzen duenean eta ez bapatean, proposamena aurrekontuak onartzeko egunean egiten delako”

(Xabier Zubizarreta Mondragoeko Alkateak azken osoko bilkuran)

“ Porlanezko mole (frontoia) bati eman zaio garrantzi handiena. Ondorioz, besteak beste, laguntza txikiagoak etorriko dira Eskola Politeknikoarentzat, azken finean, bailara honetako euskarri teknologikoa, honi atxekirik gaudelarik bailara hau hondamendi industrialetik ateratzeko”


(Aitor Orobengoa EEko zinegotziak, azken osoko bilkuran)

“ Zordunketa-indizeari dagokionez, txarrean ere Udalak 1987an zeukan mailara eraman dezakegu. Gainera, %12koa bada ere, benetan baxua da”

(Xabier Lasaga EAJko zinegotziak azken osoko bilkuran)

Zein da OMIC-KIUBaren funtzioa? Betetzen al du funtzio hori?

1983an sortu zen Udal Bulego hau. Gure eginkizunen artean, beharbada ezagunena kontsumo gaiez informatzea da. Zerbitzu, salerosketa, turismo, etab.ez informatu beharra du bulego honen.



Erreklamazioak jaso eta konpontzen ere saiatzen gara. Udalaren konpetentzia ez diren erreklamazioak, Eusko Jaurlaritzaren, Kontsumo, Turismo, Merkataritza edota gaia dagokion zuzendaritzari bidaltzen dizkiogu, tramite guztiak guk bideratzen ditugularik. Erreklamazio gehienak larriak izaten ez direnez, gu geu saiatzen gara konpontze eta ez da espediente administratiborik jasotzeko beharrik izaten.

Erreklamazioak konpontzeko garaian, arazo nagusia frogak biltzea izaten da, jendeak gehienetan ez bait du aurrekontu, kontratu edota antzekorik gorde edota eskatzen, erreklamazioak egiteko orduan inolako frogarik ez duelarik izaten.

Bestalde, informazio kanpainak ere burutzen ditugu, dendarri —araudiak, etab. eskainiz— zein kontsumitzaileei —fitxak, egunkarietan oharrak kaleratuz, etab.— zuzenduak. Eta azkenik, kontsumitzailea hezteko zenbait ekintza ere burutzen ditugu, kontsumo ikastaroak, tailerrak eta antzekoak eratuz, beste zenbait erakunderekin elkar lanean.

Orain arte, gehien bat informazioa eman eta erreklamazioak jaso baino ez dugu egin. Iaz hasi ginen gure beste betebeharrak poliki-poliki betetzen.

Antton Fernandez
Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoko arduraduna

“UMEZAINZA” HAUR-ESKOLA

Matrikula irekitzea

- Urte 1etik 5 urtetarako haurrentzat.
- Matrikulatzeko epea: martxoaren 1etik 31arte

Gure zuzenbidea:

Jose Luis Iñarra kalea 30-32,
Tfnoa: 79 01 02

Orduak:

Goizez: 9etatik 12,30etara
Arratsaldez: 2,30etatik 3,30etara



umezaintza

1990eko Haratuzte egitaraua

Larunbatean hasi, eta asteazken goizaldera arte luzatuko dira aurten-go Haratuzte jaiak. Hona hemen datatu ahal izango dugun egitaraua:

Larunbatean, Setan Santxeski erakusketa Zaldibarren, eta ordu berean Argazki Rallyaren hasiera.

6etan, Monterron ondoko orubean, haurrentzako sokamuturra.

7,30etan, Erraldoi eta Buruhandien desfilea.

10,30etan, Play Back jaialdia Amaia antzokian, zenbait pertsonai ezagunek parte hartuko dutelarik.

11etan, Sebero Altuben dantzaldia, Txintxarri taldearekin. Eta gauerdiko orubatean helduentzako sokamuturra, Monterronen.



Igandean, 12,30etan haurrentzako antzerkia Sebero Altube plazan. 6,30etan hasi eta 10ak arte,

Eguzki taldearekin dantzaldia Sebero Altuben. Eta 8,30etan, "Zezen suzkoa".

Asteartean, 4etan Arbolapetan konzentrazioa haurren mozorro desfilea hasteko. Desfilea amaitu ondoren *Takolo, Pirrux eta Porrotx* pailazoak Sebero Altuben.

7etatik 9ak arte, Haratuzteetako musika *Samasiku* fanfarrearekin. 11etatik ordubata arte ere hor ibiliko dira, kalean gora eta behera.

9,30etatik goizaldeko ordubiak arte, *Claque* orkestrarekin dantzaldia Biteri aparkalekuan.

11,30etan, sardinaren hileta. Eta bukatzeko, 12,30etan mozorro-lehiaketaren sariak banatuko dira.



Haur-Antzerkia Ferixalekuan


Pasa zen ostegunean, Ferialeko Eskola publiko 1, 2 eta 5. mailetako haurrek bi antzerki saio eskaini zituzten gurasoentzat. Aretoa jendez gainezka.

Lehenengo antzespenak, "Tximeleta egan ezinik" izenekoa, ordu laurden inguru iraun zuen; eta bigarrenak, "Lehenengo oporrak" izenburuarekin, ordu erdi luzetxoa.

Ederto aritu ziren haurrek, eta ikusleek barre ugari egiteko aukera izan zuten. Txaloak ere ez ziren falta izan gure artista gazteentzat; ondo merezitako txaloak gainera!

Bainugela-erakusketa

I RE KI B E R R I A !!!



ibarluzea

Olarte 19-21, Tfnoa: 79 22 49 ARRASATE

■ AEKren oharra

AEKn, EGA eta alfabetatze taldeak osatzeko jendea behar da. Hala nahi duenak, pasa dadila Erdiko kaleko euskaltegitik, edo bestela, dei egin dezala 797112 telefonora.

■ Eskualde epaitegia

Astelahenean bilduko dira Zarautzen, Eskualde epaitegia lortzeko borrokan diharduten 12 Udaletako ordezkariak. Euren asmoa, Justizi Ministeritzaren aurrean egin beharreko gestioetarako ahalik eta koordinazio sendoena lortzea.

Arrasateko Udalaren izenean, Xabier Zubizarreta Alkatea hurbilduko da bilerara.

■ Rockaren batzarra

Martxoaren 3an bilduko dira Monterronen Gazteria Batzordeko ordezkariak eta Arrasateko Rock taldeak, 90 urteko egitarauari buruzko xehetasunak prestatzeko. Besteak beste, talde horientzat entseigune aproposa egitea eta urtean zehar emango diren emanaldiak jorratuko dituzte bileran.

■ Mankomunitatea

Asteazkenean bildu zen Antzuolan Deba Garaiko Udal Elkarteak. Bertan, ur-partzuergoa eta Euskal Herriko errepideen egitasmo orokorrari buruz aritu ziren gure ordezkariak.

■ Ignazio Iraeta hil

Pasa zen ostegunean Ignazio Iraeta hil zen, hainbat urtetan zehar Arrasateko Udaleko idazkaria izan zena. Ignaziok 66 urte zituen. Dolu-minak emazteari (Nieves Jauregi) eta seme-alabei (Javier eta Itziar).

T x a n d a k a

Arrasate Press lehenengo, Arrasate Telebista bigarren,...Komunikazioak euskaraz Arrasaten

Arrasate Euskaldun Dezagun, AEDko ekintzaile multzo bati komunikabideak euskaraz Arrasaten martxan jartzea bururatu zitzaientetik makinatxo bat lan egin behar izan da.

Lan eginez gero ondorioak kaleratzen dira, lanik gabe ez da ezer lortzen.


Arrasatek badu lanaren ondorio bezala eraikitako esenplu ezagunik, eta mundu guztian ezagunak gainera: ikastetxe, lantegi, banku, ikerketa-etxe,...

Arrasate Press hainbaten lanaren ondorioa dela nork ukatu! Benetan lan ederra. Eskerrak guztioi.

Orain Arrasate Telebista dugu atetan.

Eta hau dena zertarako? Zergatik?

AEDren ekintzaileentzat argi daude euskarazko komunikabideen proiektuaren helburuak. AEDren bazkideek eta herri osoak ere ezagutu behar ditu helburu horiek. Hauek dira:



Joxemari Mujika (*)

* Informatzea, herritarrok gerturik ikutzen gaituzten berriak emanez.

* Bateratzea: Euskarara elementu integratzaile eraginez, edade eta jatorri desberdinetako jendeak gustora irakurri, entzun eta ikustea lortuz.

* Kultura zabaltzea, edozein motatako gaietan.

* Entretentzea, denbora ondo pasatzeko bidea eskainiz.

Arrasate Pressekin lortu denik ezin uka.

Arrasate Telebistak badu erronka. Erantzungo ote dio? Hori da A.E.D.ren borondate sendoa.

Hortarako elkarlana beharrezkoa da. Beraz, egin zaitez A.E.D.ren bazkide, bidali eizazkiguzu zure iritziak. Euskaldun guztion languntza espero dugu. Bakan batzuen lan itzela ez da nahikoa; guztion lanarekin ziurrago lortuko dugu.

(*) AEDko Lehendakaria

■ Inaxio Oliveri

EAKo Idazkari Nagusia Monterronen izan genuen hizlari. Bere alderdiak antolatuta, autodeterminazioari buruzko hitzaldia eman zuen, alderdikide ugari hurbildu zirelarik.

■ Ostegunean mahaingurua

Datorren ostegunean, martxoak bat, mahai ingurua antolatuko dute Monterroneko hitzaldi aretoan; gaia, "Nolako eskola publikoa nahi dugu". Ordua, arratsaldeko 7etan.



**Arrasateko
jatetxea**

Olarte kantoia 3,
Tfnoa: 79 84 53





Roneoko langileak greban

Enpresak Oskar Marco berriro onartu arte

Roneoko langileak haserre daude eta mugagabeko greban, enpresaren zuzendaritzak Oskar Marco mantenenimenduburua kalera bota zuenetik.

Joan den astean, 15 urte lanean zeraman mantenenimenduburuak eskutitz bat jaso zuen etxean. Eskutitzean, bere lana ondo egiteko gaitasun-eza argudiatuz, zuzendaritzak kaleratua zegoela jakin erazi zion.

Erabakiaren ondorioz, ostiralean enpresako langile guztiak grebara irten zuten, eta adierazi ere, bere lankidea berriro lanean ikusi artean ez direla lanpostuetara itzuliko.

Enpresa batzordean ordezkariak duten sindikatuek, ELA, UGT eta LABek hain zuzen ere, adostasuna erakutsi dute mugagabeko greba honekin. Aditzera eman dutenez, gainera, enpresako zuzendaritzarekin egingo duten bileran akordio batera ez badira heltzen gogortu

egingo dute beraien jarrera.

Kontuak kontu, Roneoko langileek hainbat ekintza burutu dute ostiraletik. Goizero elkartzen dira Garibai kaleko Roneo lantegiaren aurrean, eta bertan erabakitzen dute zer egin: trafiko-mozketak (Arrasatera lanera datozen guztientzat benetan kaltegarria), piketeak, kotxe karabanak burutu, etab.

Bazirudien (arazoa agertu aurretik), Roneo enpresa sasoi onean zegoela. Orain aste batzuk kaleratutako informazioen arabera, 2.400 milioi inbertitu dira azken boladan (2.000 Kataiden, eta 400 Logroñoeko Modurama enpresaren erosketan).

Baina orain... Zuzendaritzak, Oskar Marko Logroñoeko Moduraman berronartzeko aukera eman zuen irtenbide gisa, baina itxura denez, langileek ez dute halakorik nahi. Nola amaituko ote da auzia?

Usteak uste...

Osoko bilkura inportantea izan zen ostiralekoa, ez hiru ordu luzez betikortu zelako, ez, esan ziren hainbat eta hainbat gauza soberan egon bait ziren, berez herri baten diruak zertan gastatzen diren garrantzizkoa delako baizik. Neurri handi batean, egingo dena eta egingo ez dena baldintzatuta etorriko da aurrekontuetatik.

Udalaren aldeko puntua aurrekontuak otsailean onartzea izan da, hortik zehar ~~ustaitan~~ edo berandua-go onartzen direla kontutuan hartzen badugu batez ere.

Plenora itzuliz, momentu go-gaitkarriak kenduta, irakaskuntzan eta auzoetan zentratu ziren kezkarik garrantzitsuenak. Egia da aurrekontu guztiak momentuko herrien sentsibilitateen arabera tajutzen direla. Mondragoen, gauzak dauden bezala, nahiago izanda bi kirol eraikuntza handi egin, txanponak beste ezertan gastatu baino. Gauzak horrela daude eta ez dago bueltarik. Modurik demokratikoenean egin da.

Agian aldatu beharrezkoak sentsibilitateak dira.

Informatikan gaur egun bi hitz klabe daude: hardware edo aparailuak, materialak eta software edo adimena, ideiak. Hasieran lehena zen kotizatuen. Gaur egun berri, hardwarea merketzen ari den neurrian, softwarea geroz eta garestiagoa da. Softwarea sortzeko heziketa eta irakaskuntzan inbertitzea ezinezkoa da eta bestela gureak egin du.

Ausartak eta irudimentsuak izan beharko gara irakaskuntzari dagokionez eta irudu zitzaidan kezka hori azaldu zela Monterroneko aretoan, sensibilitate maila desberdinekin izan bazen ere.

Joxe Aranzabal

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
belrina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**KIROLDEGI
JATETXEA**

EGUNEKO MENUA

ETA KARTA

Musakola Auzoa. 79 82 31



Haur hauek ere alde egingo ote dute gaztaroan?

Biztanlegoaren gora-beherak

456 pertsona joan ziren 89an herritik, eta 228 etorri

1989 urtean zehar, 456 pertsonak alde egin zuten Arrasateetik; kanpotik berriz, 228 etorri ziren hona bizitzera. Gauzak horrela, migrazio mugimenduan Mondragoek 228 pertsonatan jaitsi zuen bere biztanlegoa.

Kanpotik etorritakoen artean 90 gipuzkoarrak ziren, 40 bizkaitarrak, 23 arabarrak, 8 nafarrak, 59 Espainiako hainbat herrialdetakoak eta 8 atzerritarrak.

Alde egiteko orduan 124 lagunek Gipuzkoa aukeratu zuten, 101ek Araba, 40k Bizkaia, 8k Nafarroa, 173k Espainiako hainbat herrialde,

eta 2 atzerrira joan ziren.

Aipa dezagun bizitoki berriztat aukeratuena Gasteiz izan genuela, bertara 100 biztanle-ohi joan bait ziren. Ondoren Aretxabaleta, nora 73 lagun aldendu zitzaizkigun. Bergara, Donostia eta Bilbo ere hainbatetik jo zituzten guna apropostzat.

Adinari dagokionean, migrazio mugimenduetan gehienbat ere 60. hamarkadan jaiotako jendea izan dugu protagonista; hogeit eta hogeitamar urte arteko 134 gazte joan zitzaizkigun, eta 94 etorri. Aldaketa ugari, beraz, herrian emandakoak.

Zergak ordaindu

Martxoaren 30a arte zabalik egongo da ur, zabor eta kaño-zuloei dagozkien zergak ordaintzeko epea (1989ko laugarren hiruhilabeteko zergak, hain zuzen ere). Epe hau igaro ondoren, ordaindu gabeko errezeboak 520ko gainkarguarekin kobratuko dira.

Bestalde, gogoratu otsailaren 26tik apirilaren 11rarte luzatuko dela trakzio mekanikodun autoen zergak ordaintzeko epea.

Etxe apainketa

AED Elkarteak antolatuta, atzo arratsaldeko 3etan hasi eta martxoaren hasiera arte luzatuko da etxe-apainketari buruzko ikastaroa, Rosario Garitanoren eskutik. Interesatuek, jo AEDren egoitzara, edo deitu 795446 telefonora.

Txalaparta ikastaroa

Gazteria Batzordeak antolatuta, larunbat honetan bertan hasiko dena. Hala nahi izanez gero, edonork parte har dezake bertan.

Jaiotzak

Agirreureta Diaz *Iraia*. Otsailaren 12an.
Aranberri Zezeaga, *Ekaitz*. 13an.
Heriz Isasmendi *Olatz*. 14ean.
Igartua Iturbe, *Xabat*. 14ean.
Arregi Bascarán, *Maite*. 16an.

PUB HAIZEA



BRANKA jatetxea

Eguneko menua eta karta

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....


HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

ARRASATE PRESS

77 05 65



Gerraren artxiboa mikrofilmatu

30 pelikulatik gora erabiltzeko aukera Monterronen

Datorren astetik aurrera, Juan Karlos Gerra idazle arrasatearraren artxiboaren mikrofilmak ikusi eta erabili ahal izango dira Monterron Jauregian.

Juan Karlos Gerra 1860an jaio zen Donostian, baina bere bizitzako urte gehienak Arrasaten eman zituen. XIX. mende bukaeran eta XX.aren hasieran argitaratu zituen bere lanak.

Abokatua, makina bat hitzaldi eman zituen, eta Euskaltzaindiako partaide izatera ere iritsi zen. Besteak beste, honako aldizkari hauetan

kolaboratu zuen: *Revista Internacional de Estudios Vascos*, *Euskalerrria*, *Euskalerrriaren alde*, eta *Euskal Esnalea*.

Bere libururik garrantzitsuenak *Viejos textos del idioma*, *Los cantares antiguos del euskera* eta *Oñacinos y Gamboinos* izan genituen.

Esan bezala, bere artxibo aberatsa 35en bat pelikulatan mikrofilmatu dago gaur, eta datorren astetik aurrera arrasatear orok izango du erabiltzeko aukera. Horretarako, mikrofilmak irakurtzen dituen proiektorea ekarriko da Monterronera.

Santa Ageda Koruak

Igande eguerdian Udalpe Elkarteak bildu ziren aurtengo Santa Agedako koruetako partaideak, diru-bilketaren berri emateko.

Xoxen kontaketa oraindik ere amaitu gabe badago ere, badirudi iazko marka hautsi egin dela. Aurteko urtean 902.000 pta. batu baziren, oraingoan 920.000 izan dira, hau da, iaz baino 18.000 pta. gehiago.

Badirudi atzerapenaren arrazoia aurten igandea tokatu zela izan daitekeela. Hori dela eta, enpresa askok aste honetan bertan eman dute urteroko laguntza.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete dirulaguntza eman duten guztiei, bai enpresei eta bai partikularrei ere.



Deba Garaiko enpresa batek, **PRODUKTURAKO TEKNIKO ARDURADUNA BEHAR DU**, honako baldintzekin:

- Adina: 25-30 urte. Deba Garaian bizitzea.
- Ezagupideak: Injinerutza teknikoak,
Mekanika arloan
Elektronika eta CAD diseinuaren oinarriko kontzeptuak.
Ingelesean mintzatzeko gaitasuna.

Lanean berehala hasteko. Produkzioko Zuzendaritzapean, oraingo produktuekin zerikusirik izango duten berriak sortu eta garatu beharko ditu.

Interesatuak idatzi: Postakutxatila, 1 Arrasate
Kartazalean R. T. P. ipiniz.

D
U
L
T
Z
E
A
R
E
N



A
U
T
O
Z
E
R
B
I
T
Z
U
A

Ondo pasa
Haratuzteak!

“Mondragon: más que una utopía”

Izenburu horrekin, Euskal Herriko liburutegietan salgai dago William Foote Whyte eta Kathleen King Whyte iparramerikarrek Arrasateko kooperatibismoari buruz kaleratutako lana.

1989an eman zen argitara, Txertoa argitaletxearen eskutik. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte-Segurantza Sailak eta *Ikasbide* taldeak hartu dute parte ideia honetan.

Liburuak 386 orrialde ditu, bost zatitan banatzen den ikerketa delarik.

Lehenengo zatian, Arrasate eta bere kontextua ematen dira ezagu-



den; laugarrenean, ze erantzun bilatu diren industri mundura krisia heldu denean; eta bostgarrenean egileek beraien eritziak adierazten dituzte.

tzera; bigarrenean, kooperatibismoaren lehen urratsak azaldu; hirugarrenean, aldakuntza nola gestionatu

Historiaurreari buruzko museoa

Eskoriatzako Aitzorrotz Etnografi taldeak badarama zenbait urte etnografi munduan, eta haien ekimenari esker sortu zen, gaur egun Eskoritzan dagoen historiaurreari buruzko museo-eskola.

Eskualde guztian era honetako hezkuntz zentru bakarra dugu; ondorioz, Euskal Herriko ikastoletatik gazte asko hurbiltzen dira Eskoriatzara ikasketa praktikoa eta teorikoen bitartez, historiaurrea ezagutzera.

Bertan, gazteek arkeologi pieza desberdinak ikusteko aukera daukate, denak aroz-aroz sailkatuta. Era berean, ikusten dutenaren azalpena jasotzen dute kasko batzuen bitartez.



Erakusketa Etxe Aundin

Otsailaren 28a arte iraugo du zabalik Oñatiko Etxe Aundi jatetxeko erakusketa aretoan Jose Agustin Larrañagaren Margo erakusketak. Jose Agustin Larrañaga Markinan jaio zen 1934ean, eta gaur egun Eibarren bizi da. Gehienbat ere paisaiak erabiltzen ditu bere lanetan.

12etatik 5etara, eta 8etatik 12etara aurkituko duzue zabalik; igande eta astelehenetan, ostera, 12etatik 5etara.

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

VE ECUADOR

Kontzesifio 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

KLINIKA DENTALA

DOANEKO AURREKONTUA

- * Odontologia orokorra
- * Protesi finkoa
- * Protesi mugikorra
- * Haur eta helduentzako ortodontzia

Iturriotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE

LARRINGAN

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN**

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

Udalak 1990erako aurrekontuak onartu

HB, EA eta EAJk, PSOE eta EEren enmendakinak onartu ez

Hiru orduz luzatu zen, azkenean HB, EA eta EAJ alderdien akordioari esker aurtengo aurrekontuen zirriborroa onartzeko egindako Udalaren plenoa. Ondorioz, 90ean 2.200 milioitik gora gastatuko dira, Iturbide Egoitza eta AUKEA bertan sartuz gero.

Xabier Lasaga Hazienda batzordeburuak aurkeztu zituen aurrekontuak, iazkoen jarraipena zirela esanez. Aurtengo erronkarik garrantzitsuena inbertsioetan zegoela esan zuen, ia 1.500 milioi pta.rekin.

Aldez aurretik argi zegoen zirriborroa onartu egingo zela. Halere, PSOE eta EEk hainbat emendakin aurkeztu zituzten.

PSOEek 31 aurkeztu zituen azkenean, bai osotasunera eta bai hainbat xehetasunekin lotuta, aurrekontu hauek eskuindartzat salatuz. EEren hitzetan, oster, 90eko aurrekontuak populistak dira, eta huts asko nabari zaie; handiena, Hezkuntza sailean ikusten dutena.

Adierazpen guztiak entzun eta gero, 13 botuz onartu zen zirriborroa. Ez zen enmendakin bat bera ere aurrera atera.

Aurrekontuen eztabaida soseguz joan bazen ere, plenoaren azken ordu erdian, ziztu bizian erabaki ziren gelditzen ziren puntuak. Iturri-



peko kiroldegia eta Ferixalekuko pilotalekua egitea eta obren adjudikaziorako deialdi publikoarekin ba-

tera, soldadutza eta Santa Maria de Garofari buruzko mozioak ere hantxe onartu ziren.

Okerrak konponduz

Pasa den asteko zenbakian, aurrekontuei buruz aurkeztu genizuen lanean ez genuen guztiz asmatu. Euskera saileko gastuak, hain zuzen ere, txarto kaleratu genituen. Hauxe duzue konponketa:

EUSKERA, 94.377.699 pta.	
Euskaltegiko pertsonala,	40.143.304
Beste pertsonala,	25.926.321
Dirulaguntzak,	16.878.083
Euskaltegiko funtzionamendua,	5.830.000
Batzordeko ekintzak,	2.700.000

LOREA
Oinetakoak
eta poltsak
Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ

UDALA
Auto-eskola
Minusbaliatuentzako
klase bereziak
Otalora 25, Tfnoa: 79 88 56



ITSASKI
arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak
Uribe Auzoa
Arrasate. 79 98 94


URONDO elektrizitatea.
Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

ARRASATE
PRESS
79 71 64

Badirudi sasoi onean dagoela argazkigintza arrasatearren artean. Hori ikusita edo, otsailaren 8an zabaldu zuten Ikatz argazki-denda, Iturriotz kalean. Argazkian agertzen diren Ana eta Joseba ditugu bertako arduradunak. Denda berri honen eskeintzen artean, ordubetea egiten dituzten argazki-errebelatuak azpimarratu behar.



Askotan entzun izan dugu telebista programa honek audientzia handia duela edota beste hark oso txikia. Baina nola jakiten duten, egia esan, guk behintzat ez genekien. Aste honetan, *Ecotel* enpresakoek, TVE eta ETBren aginduz, gure herriko zenbait etxetan *audimetroa* jarri dute. Aparailua, telebista eta telefonoari konektatzen omen da. Audimetroak, etxe horretan eta inguruko etxeetan ikusten ari diren telebista programen informazioa jaso eta egunean zehar pilatu egiten du, ondoren, gaueko ordu jakin batean, telefono bidez, informazio guztia datu bankura bidaltzeko. Hor goian duzuen neska irribartsuak jarri zituen audiometroak gure herrian. Hemendik aurrera arrasatearrok ere, atseginen dugun telebista saioa jakiteko aukera izango dugu.

Jose Luis Mendaratx zinegotzi sozialistak azken plenoan botatako ordagoaren ondoren, bi aukera geratzen bide zaizkio *Karmelo Uribarren* udal itzultzaile kementsuari: eszedentzia eskatu historia ikasketak bukatu bitartean, edo soldata igoera handia erregutu. Izan ere zinegotzi musakolarrak argi esan zuen, edo bapateko itzulpen sistema jartzen zaie Udalaren osoko bilkuretara-ko edo argazkian duzuen Karmelori ahobete lan emango diotela, sozialistek bertan esaten diren berba guztiak itzultzea eskatuko diote eta.

ARRASATEKO UDALA

Udal Plenoak 1990eko otsailaren 16an egindako bilkuran, besteak beste, honako akordio hau hartu zuen:

- Datorren martxoaren 15a arte luzatzea Arrasateko herriko Zoru Ez-Urbanizagarrirako Planeamenduko Arau Osagarrien Aurrelaburpena jendeaurrera ateratzeko epea.

Arrasaten, 1990eko otsailaren 19an.

Alkatea




◀ Joan dira, joan, barrakak datozen Sanjuanak arte. Santo Tomasetarako etorri ziren eta orain arte Biteri plazan izan ditugu, umeen pozerako. Ostiral ilun honetan triste zeuden zalditxoak, noiz kamioiratuko zain. Agur eta hurrengo arte.

izen propioak

■ **Jasone Diaz de Gereño**, 22, eskoriatzarra, azken 25 urtetako kirolari onenaren saria eman dio Eskoriatza Kirol Elkarteak. Jasone Andoingo Bideo eta Zine Eskolan aritu da ikasten hiru urtez. Gaur egun, Arrasate Telebistan ari da lanean. Jasone 14 urterekin hasi zen eskubaloiari jokatzeko, *Almen* eta *Hernani E. T.* aritu izan da eta Espainiako selekzioarekin aurten laugarren denboraldia burutuko du.

■ **David García**, 16, arrasatearra, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako *Zuhaitz egunaren* Kartel lehiaketaren bigarren saria irabazi du. Davidek bigarren REM-IEE ikasten dihardu San Viator ikastolan. Kartel-lehiaketan, "Mendi bat, bizitza bat" lema erabili zuen.

■ **J.A. Larrañaga**, 56, Eibarren bizi den markinarrak, hilabete honetan margo erakusketa izango du Etxe Aundin. Markinan eta Donostian burutu zituen margo-ikasketak. Zenbait urtez, ez zuen margotu Injinerutza ikasketak buru ahal izateko.



▲ Zortzi bat urte daramatza Kosme Barrutia durangarrak Arrasateko korrikalarien hanka gogortu eta minduak biguntzen eta eztitzen. Kosme bera txirrindularia izan zen, Montero ordiziarraren garaikoa, eta Anton Barrutiaren anaia. Aldi batez KAS taldeko masaialaria ere izan zen. Bere esku gogorretatik, Gabika, Perez Frances, Galdos, Momeñe, Aurelio Gonzalez, Fuente eta beste askoren hanka nekatuak igaro ziren. Orain asteazkenero etortzen da Mondragoera, eta goizeko zortzi t'erdietatik arratsaldeko zazpietara Iturripeko etxe zaharrean egoten da, aldagelan gainean. Argazkian Pablo Balerdiri masaia ematen.

prest

ZENTRO PSIKO-MEDIKOA

J. Carlos Gerra 13, 3. Tñoa: 77 08 96 ARRASATE

GIDA TXARTEL ETA ARMA BAIMENETARAKO MIAKETAK

Gaztetan ikasten ez denean

UNESCOK 1990.a alfabetatzearen urtea izendatu

Uneskok 1990. urtea, alfabetizazioaren urtea izendatu du. Arrasaten, erroldako datuen arabera behintzat, idazten eta irakurtzen ez dakien oso jende gutxi dago. Hala ere, alfabetizazioaren arazoa, uste baino larriago da euskarari dagokionez, behintzat.

Arrasateko biztanlegoaren erdia inguru euskaraz hitz egiteko gai bada ere, oso kopuru txikiak daki euskaraz behar bezala idazten eta irakurtzen. Bestalde, herritarren artean gaztelaniaz idazten eta irakurtzen ez dakien jendea ere badago, Helduen Heziketa Iraunkorrerako Zentruan, urtero alfabetatze talderen bat sortzen delarik.



Gizonezkoek ez ote dute alfabetatze beharrik?

Erroldako datuen arabera

1986an burutu zen erroldaren arabera, Arrasaten 25.706 lagun bizi da. Hauetatik 10.961 euskaldunak dira, 3.979 ia euskaldunak eta 10.766 erdaldunak. Horrela bada, Arrasateko biztanlegoaren erdia euskaraz hitz egiteko gai da. Hala ere, euskaraz hitz egiteko gai diren arrasatear guztiak ez direla beren hizkuntzan idatzi edota irakurtzeko gauza esan daiteke. Errollda bereko datuen arabera, 7.038 arrasatear dira euskaraz idazteko gai eta 7.908 irakurtzeko gai. Garbi ikusten da beraz, oraindik makinatxo bat euskaldun dagoela euskaraz idatzi edota irakurtzeko ezigauza dena.

Edonola ere, kontutan izatekoa da erroldako datuak eritzizko datuak direla. Hau da, inork ez du azterketa

edo antzekorik egiten benetan jasotako erantzuna egia den ala ez jakiteko eta nork bere buruaz duen eritzia ematen du. Pertsona batentzat idazten ondo jakitea dena, beste batentzat eskas idaztea izan daiteke edota alderantziz. Bestalde, inkesta-

tuak benetan duen maila azaldu beharrean, izan nahi lukeena azal dezake.

Alfabetatzeko behar handia

Gai honetaz hitz egiteko Udal Euskaltegira, Erdu Euskaltegira eta Udaleko Euskara Zerbitzura jo

dugu. Guztiak euskaldun zaharrak alfabetatzeko behar handia dagoela adierazi digute, behar hori behar bada guk uste baino handiagoa dela gehituz.

Euskaltegiek, ikasturte hasieran, euskalduntze ikastaroekin batera alfabetatze ikastaroak eratzen dituzte. Hala ere, alfabetatze ikastaroetan oso jende gutxi ematen duenez izena, askotan ez da izaten taldea eratzeko aukerarik. Aurten 1989-90 ikasturtean, Erdu Euskaltegian zein Udal Euskaltegian ez da egon alfabetatze talderik urtarrilera arte.

Euskaldunak alfabetatzeko behar hau, 26 urtetik gorako jendeak euskaraz ikasteko aukerarik izan ez duelako sor daiteke. Edonola ere, beste zenbait arrazoi aipa daitezke. Orintsu arte, ez da euskara jakin eta are gutxiago euskaldun alfabetatuak izateko beharrik izan. Jose Felix Diaz de Tuestak, Udaleko euskara zerbitzuko arduradunak, oraintsu arte euskaldun arruntak irakurtzeko irakurgai erakargaririk ez izatea ere aipatu digu alfabetatze arazo honen arrazoi gisa.

Euskaldun zaharrak alfabetatzea erdaldunak euskalduntzeko bidean lagungarri izan daitekeela adierazi digute. Euskaldun berriek askotan ez bait diete euskaldun zaharrei ulertzen eta euskaldun zaharrak ez dira euskara batua ulertzeko gai.

Administrazio, banku, lantegi etab. etako hizkuntza mendeetan

26 urte baino gehiago duten euskaldun zahar gehienak alfabetatu gabe daude

zehir gaztelania izan da, eta ohiturak apurtzea oso zail suertatzen da.

Kanpaina berezia aurten

Leintz bailarako udal euskaltegiek, aurten, alfabetatze kanpaina berezia jarri dute martxan, behar larri honi nolabait aurre egiteko.

Kanpainak Arrasaten, "leiruten eta eskribiruten ikasteko kanpaina" izenarekin ezagutu da. Erantzuna oso ona izan omen da. Arrasaten bereziki hiru talde sortu da, emakumez osatuak gehien bat.

Kanpaina honen helburua, euskaldun zaharrak oso gauza sinpleak euskaraz idatzi edota irakurtzeko gai izatea da, bankuko txekak euskaraz idazteko edota Arrasate Press bera irakurtzeko gauza izatea. Udal Euskaltegian adierazi digutenez, parte hartzen dutenak Euskaltegira seme-alabei laguntzeko gai izateko jo dute, ez beraiek euskara ikasteko beharra somatu dutelako, oraindik euskaraz hitz egitearekin nahikoa dela uste bait du jende askok.



Aspertuta zeuden bankura joan eta idazten ez zekitela aitortzeaz.

Izena idaztearen harrotasuna

"A izu mesedez, esango didazu zein pisutan bizi den urlia" edota "aizu mesedez, betaurrekoak etxean utzi ditut eta, esango didazu zenbat balio duen jertse honek,". Horrelako esaldiak, maiz entzun ditugu gutariko gehienok. Behar bada gure laguntza eskatu duenak etxean utzi ditu betaurrekoak, baina akaso ez daki irakurtzen. Azken erroldako datuen arabera, Arrasaten 382 analfabetu bizi da. Udalean zein Helduen Hezkuntza Iraunkorrerako zentruan adierazi digutenez, idazten eta irakurtzen ez dakien jende hau, kanpotarra izan ohi da, arrazoi ugari dela medio, bizitzan zehar idazten eta irakurtzen ikasteko aukerarik izan ez duen jendea.

HHIn gaur egun sei pertsonaz osatutako taldea dago idazten eta irakurtzen ikasten. Bost emakume

eta gizonezko bat baino ez. Normala omen da emakume gehiago izatea, idazten ez dakien emakume gehiago dagoelako eta gizonei asko kostatzen zaielako idazten ez dakitela onartzea. Ikasleen hitzetan oso gogorra egin zaie zentzura hurbiltzea analfabetuak zirela aitortuz, bizitzan zehar izkutatzer saiatu bait dira beren ikasketa eza. Maitek esaterako, ikastea erabaki eta bi urte behar izan zituen zentzura hurbiltzeko. Arraroa egiten bazaigu ere, taldean ikasten diharduten batzuk beren izena idazten ere ez zekiten eta nonbait sinadura jartzera behartuta ikusten bazuten beren burua, X bat ezartzea beste erremediorik ez zitzaien geratzen.

Adineko emakumeak nagusiki, nazkatuta omen zeuden bankura edo dendarara joan eta idazten ez zekitela aitortzeaz.

Helduak garenean HHIn aitortu

digutenez, oso zaila omen da idazten eta irakurtzen ikastea, gutxienez bi urte behar direlarik, txukun idazten eta irakurtzen ikasteko. Marrazkien laguntzaz, letrak ikasten hasiko dira, ondoren hitzak osatzeko eta azkenik esaldiak osatuko dituzte. Matematika apurren bat ere ikasiko dute, dirua erabili beharrak zenbakiak ikastera eta eragiketa ugari egitera behartu baditu ere, ez bait dakite zenbakiak idazten edota biderketa eta zatiketak egiten.

Irakasleek pozik hitz egiten digute talde honetaz, ikasteko gogo handia duen jendea dela adieraziz, ikasitakoaz harrotzen direnak, egunero klasean ikusiko ditugunak.

Ikasteko adinik ez dagoela erakusten digute emakume hauek, gogo eta umore onez, jo eta ke egunero letra bat gehiago ikasten dutelarik.

X. GOROSARRI eta M. L. TROJAOLA

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

BIZKARREZURTERAPIA

KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU

San Vicente Ferrer, 4 etxeba. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67
San Jose Policlínica. GASTEIZ Tfnoa: 945-22 33 00

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. ezk.
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE

ARRASATEKO UDALA

Udal Plenoak, 1990eko Otsailaren 16an egindako ohizko bilkuran, hartutako akordioen laburpena.

- Udalaren Udal Aurrekontuari eta beronen exekuzio-oinarriari hasierako onespen ematea, bai eta 1990erako Udalaren Aurrekontu Orokorra eratzen duten "Iturbide Egoitza" eta "AUKEA" Erakunde Autonomoen aurrekontuak ere, zenbatekoa guztira 2.229.073.956 pezetakoa delarik.
- (Uribarri Auzoa, Fagor-Garagartza) S-3 Sektorean Arau Subsidiarioak Birdefinitzeko Testuaren burutzapen-lanak bukatzeko erizpidea eta soluziobideak finkatzea.
- S-3 Sektoreko Antolamenduaren Plan Partzialaren burutzapen-lanak bukatzeko erizpide eta soluziobideak finkatzea.
- Ferixalekuko Pilotalekuaren Proiektua eta anexo berritua onartzea.
- Ferixalekuko Pilotalekua eraikitzeko obrak adjudikatzeko Lehiaketa Publikoa deitzea.
- Iturripeko Kiroldegia eta Pista Balioanitzen proiektua onartzea.
- Iturripen Kiroldegia eta Pista Balioanitzak eraikitzeko obrak akjudikatzeko lehiaketa publikoa arautu behar duten oinarri-arauak onartzea eta dagokion lehiaketa deitzea.
- (San Andres Auzoa) A-8 Arearen birzatiketa-espeditentari hasiera ematea.
- Herriko Zoru Ez-Urbanizagarriko Arau Osagarrien aurrelaburpenari iradokizunak aurkezteko epea hilabetez luzatzea.
- Azoka Kalea 1ean dagoen erabilera anitzetarako udal edifizioaren mugaketa-espeditentari hasiera ematea.
- 1480/89 zkiko Errekurtsio Kontentzioso Administratiboan agertzeari buruz Alkatetzaren Probidentzia berrestea.
- H.B.k aurkeztutako mozioa dela eta, ondoko akordioak hartzea:
 - * Kontzientzia Eragozpen Legea errefuxatzea eta Ordezko Zerbitzu Soziala egingo duen eragozlerik ez onartzea.
 - * Euskal Gazteek soldadutza ez betetzeko duten eskubidea aldarrikatzea.
 - * Herriko edozein gazte, eragozle izateagatik detenitu edota prozesatuta izango balitz, berari Udalak laguntza eskainiko lioke eta bere prozesuaren jarraipena egingo luke.
- * Erabaki guzti hauen inguruan, herritarrek beharrezkoak dituzten informazioa eta zerbitzuak Udalak bideratzea.
- Eguzki eta EKIk aurkeztutako mozioak direla eta, ondoko akordioak hartzea:
 - * Santa Maria de Garoñako Zentral Nuklearra berehala itxi dadila eskatzea.
 - * Biztanlegoa Energia Nuklearrak sortzen dituen arrisku larriez kontzientzia hartzera animatzea.
 - * Seguritate Nuklearrerako Kontseiluari, Santa Maria de Garoñako Zentrala ixten ez den bitartean, Euskal Herri osoan Zentral Nuklear honetan istripu ebentual baten arriskuei kontra egingo duen babes zibil eta estualdi-plan bat martxan jartzeko eskatzea.
 - * Komunikabideen bidez hartutako erabakiok publiko egitea.

Arrasaten, 1990eko otsailaren 19an.

ALKATEA

"Kooperatibista, borandatez izan behar da"

Jesus Herrasti, etorkizunari begira Fagor indartu nahian

Jesus Herrasti 43 urteko atxabaltarra dugu Fagorreko lehendakaritzan Alfonso Gorroñogoitiak utzitako postua betetzen duen gizona. Hamazazpi urterekin kooperatibetan lanean hasi zen gizon hau pozik agertzen da bere kargu berrian, nahiz eta erantzunkizun handia dela adierazi.

— *Kooperatibak sortu zituztenak poliki poliki jubilatzen hasi dira. Aldaketa horiek zer suposatuko diote Fagor taldeari?*

— Nik Alfonso jubilatu delako hartu dut postu hau. Prozesu normala da, jubilatu denez, kargua beste norbait bete behar du.

Gure errealitatean pertsona batek ez du erakundea kolokan jartzen. Beraiek ere esaten zuten, erakundeek pertsonak baino gehiago irauten dutela. Guk martxan dagoen errealitatea jaso dugu eta horri jarraipena ematea dagokigu. Euren lana garrantzitsua izan zen, baina Fagorren, euren ideia eta proposamenak aurrera eramateko gai eta prestatuta dagoen jendea badago. Honetan beraiek ere nirekin ados egongo direla uste dut.

— *Aldaketa, 93. urte famatua gainean dela eman da. Zein egoeratan sartuko da Fagor Europako merkaturu librean?*

— Estatuan Fagor talde indartsua dugu, baina Europan ez hainbeste. Gure helburu eta ahaléginak Europari begira jarri behar ditugu, Fagor hurrengo urteetan, Europan elekragailuak egiten dituzten enpresa lider-en artean jartzeko. Iaz Fabrelec geureganatzean, Estatuan elekragailuak egiten dituen enpresa nagusia bilakatu zen Fagor.

Hori da gure lana, Euro-

pako beste enpresa batzuk bezala, garrantzia, tamainua eta konpetitibitatea izatea.

— *Ez al da kontraesana, Fagor taldea kooperatibez osatua egotea eta Fabrelec-ek Elkarte Anonimo bezala irautea?*

— Beno, beharbada bai. Gu, hemengo langileek kooperatiba izatea erabaki edo nahi dutelako gara kooperatiba. Frebrelec-eko langileek, kooperatibista izateko nahia adieraziko balute aukera hori dute. Kooperatibista, norberaren borondatez izateko da, ezin da inor kooperatibista izatera behartu.

— *Sarritan entzun izan da, kooperatibek profesionalak mantentzeko zailtasunak dituztela...*

— Momentu honetan ez



Jose Luis Herrasti

zazkiguke horrek. Hori guk izan ditzakegun arazoetariko bat baino ez da. Konpontzeko gaur egungo egoera aldatu egin behar baldin bada, aldatu egin beharko da, nahiz eta gure kultura eta erizpide berruan oso finkatuta dauden ideiak izan.

— *Aldaketa horrek ez luke beti aipatu izan den solidariitatea hautsiko?*

— Nik apostu egingo nuke, guk momentu honetan ditugun, erregularizazioak eta desberdintasunak inon baino txikiagoak direla. Be-

neurtzen. Kontua ez da hori, zenbat ematen dugun da neurtu behar dena. Asko ematen baldin badu, asko ordaindu behar da, gutxi ematen baldin badu gutxiago. Arazoa asko edo gutxi ematea zer den neurtzea litzateke.

— *Duela gutxi, Sobiet Batasuneko ordezkariak batek kooperatibak bisitatu ditu. Zure eritziz, Arrasateko Kooperatiba Taldearen sistema Ekialdeko estatuentzat baliagarri da?*

— Guk hemen sistema hau dugu, guri ona dela iruditu zaigulako. Beste edozein pertsona edo taldek gure sistema interesgarri ikusten baldin badu eta hemengo zerbait baliagarri gerta dakiokeela uste baldin badu, etorri eta guk erakutsiko diogu.

Ekonomi merkatua ez dagoen leku batean gure sistema ezartzea nahiko zaila ikusten dut. Sistema osoa aldatu beharko dute, eta ez dakit zein izan daitekeen aurkituko duten irtenbidea, gurea izan daiteke edota besteren bat. Hala ere, ez dut uste orokortasunean esportagarria den sistematik dagoenik.

"Ez dut uste orokortasunean esportagarria den sistematik dagoenik"

dakit arazo garrantzitsua den, baina aurrera begira garbi dago horri aurre egin beharko zaiola. Guk jende asko trebatzen dugu, baina gaituak daudenean, aukera hobek izaten dituzte eta bertan mantentzea oso zail suertatzen da. Gaur egun profesional onari inoiz baino gehiago ordaitzen zaió. Orain arte, jende hori bertan hezi eta trebatu delako bertan mantendu izan da baina luze- ra begira arazoak ekar die-

har bada, gurea beste errealitate eta enpresa mota bat delako. Edonola ere, erabaki hori hartzean ez dut uste, desberdintasunak oso handiak izango direnik. Baina zer da solidaritatea? Solidaritatea ez da bakarrik diru kontuan neurtzen. Demokrazia onartzea, edozein lan egiteko gertu egotea, lan egin behar denean toperaino egitea. Bakoitzak duena ematea da solidaritatea. Denok, zenbat kobratzen dugun ari gara




Eskoriatzako Kirolaririk onena

Eskoriatza Kirol Elkarteak bere 25. urteurrena bete du aurten. Hori dela eta, beste ekintza batzuen artean, Eskoriatzako azken 25 urteotako kirolaririk onenari sari berezia ematea erabaki zuten.

Pasa zen asteazkenean egin zen ospakizuna. Horrela, Donosti eta La Navarra neska saskibaloitza taldeen arteko neurketaren atsedendian, ustekabe galanta jaso zuen **Jasone Diaz de Gereñuk**. Zergatik? Ba, sari berezi hori Hernani eskubaloitza taldeko nazioarteko maila lortu duen atezain honentzat izan zelako. Zorionak, Jasone!

32 gol

Argazkian entrenatzen ikusten dituzuen mutiko hauek ederra egin zuten orain 15 egun. Mondra taldeko gaztetxoek 32 gol egin zituzten partidu batean, eta egun hartan aurrean zegoen Soraluzekeko taldeak bat bera ere ez. Edo gure jokalariek Maradonatxoak dira, edo Soraluzekeok sarriago entrenatu beharko lukete!



Xake partidak irratiz

San Andres Xake taldekoek ideia bitxia jarri zuten martxan. Aretxabaletakoekin ados jarri, eta irratiz igorritako mezuen bidez jokatu zituzten bi partida elkarren aurka. Emisoraren alde batean Juan Carlos Mayo, Eugenio de Andres eta Juan Luis Valgañon arrasatearrak; bestean Joseba Altube, Aitor Alkaide, Francisco eta Antonio de Miguel atxabaltarrak.

Norgehiagoka berezi honetan, azkenean atxabaltarrak izan genituen garaile; baina badirudi aukera berriak edukiko dituztela gure jokalariek, esperientzia positibotzat jo eta ostera egitekotan omen daudelako.

**E D E L
TAPIZTEGIA**

**Gortina
Alfonbra
Koltza**

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

podiuma

Jose Ignazio Elorza, Atletismo taldearen lehendakaria


Atletismoarenganako maitasuna aspaldiko kontua du Jose Ignaziok.

Jauzien munduan lehen urratsak Bergaran eman zituen, garai haieran Arrasateko atletismo talderik ez bait zegoen. *"Baina halako batean taldea elkartu ginen, Fernando Zufiria, neu eta beste bizpahiru, eta Arrasaten lan egiteko konpromezua hartu genuen"*.

1968an gertatu zen hori, eta noski, ordutik makina bat gorabehera jasan ditu taldeak. *"Batez ere gaur modalitate askoz gehiagotan ari gara. 68an abiadura-lasterkariak, jauzi-egileak, eta bakan batzuk besterik ez ginen elkartzten. Gaur egun, ostera, ia atletismoaren disziplina guztiak hartzen ditugu: ibiltariak, hesi-lasterkariak, pertika-jauzilariak, etab. daude orain"*.

78 urtearen inguruan jasan zuten krisialdirik garrantzitsuena; baina ederto irten ziren aurrera. Fernando Zufiriak alde batetik, eta Jose Ignaziok bestetik egindako lanari esker, Arrasate Atletiko taldea inoiz baino indartsuago dago gaur egun. *"Pasa zen urtean Gipuzkoako hirugarren gelditu ginen, eta Euskal Herriko seigarren postuan. Hori dela eta, hemendik gutxira, Euskal Herriko sei talde onenen arteko lehiaketan hartuko dugu parte Anoetan"*.

Egitura aldetik ere sendo ikusten du Jose Ignaziok Atletismo taldea. *"Hemen, Arrasateko atletismoa osatzen duten estamentu guztiak daude ordezkaturik: entrenatzaile-*



ak, atletak, epaileak, bazkideak eta noski, zuzendariak ere bai".

Etorkezinerako, bi erronka omen daude ekipoaren zain.

Alde batetik, erabiltzen diren diru-kopuru urriekin kirol hau bultzatzen segitzea. *"Hemen diru gutxi dago, eta gastu ugari. Galdetu bestela Fernandori zenbat bidaia ordaindu behar izan ditugun geure poltsikotik. Gure asmoa herriko gazteekin lan egiten segitzea da, atletismoa egin nahi duen edonork aukera izan dezan. Gay, edo Maizbide bezalako fenomenoak agertzen badira hobeto, baina mailaz igotzen duten heinean, Arrasate Kirolak bezalako laguntzaileen borondate onari esker bakarrik jarraitu ahal izango dute hemen (eta hori, ez badira punta-puntara heltzen)"*.

Eta bestetik, behingoz instalazio egoki batzuk lortzea. *"Iturripen egingo dutenarekin konformatuko garela uste badute, jai daukate. Ez gara ixilduko, gaur egun dagoen kirol eskariari instalazio benetan egokirekin erantzun arte"*

■ Mondrak enpate

Ondarrura joan zitzaizkigun gure jokalaririk igandean, eta bertan hurnako berdinketa lortu Aurrera taldearen aurka. Igande honetan, 4etan Galdakao taldea Atxabalpen.

■ Saskian garaipena

Partiduko azken hamarrenean, epaileak arrasatearren aldeko bi tiro eman zituen; Landerrek ez zuen aukera galdu, eta ederto asmatu zuen. Berari esker, Arrasate Kirolak 65, Patronatok 64.

■ Rugbyan lapurketa?

Gernika eta Arrasate Kirolak Rugby taldeak partidua hastear, eta epailea agertu ez.

Egoera horren aurrean erabaki benetan eztabaidagarria hartu zen: Gernikako jokalaria bat izendatu zuten epaile.

Zertarako kontatu han gertatu zena? Bukaeran Gernikak 14, Arrasate Kirolak 9.

■ Eskubaloian liderrak

24-25 irabazi zuen Arrasate Kirolak eskubaloia taldeak Erreterian, Ereintzaren kontra. Honenbestez, sailkapenaren lehenengo postuan ditugu mondragoetarrak.

■ Jose Antonio Gay

Orain 15 egun Parisen Espainiako selekzioarekin; igandean Espainiako pista estaliko 200 metroko finalerdietan; eta asteartean Donostiako nazioarteko lasterketaren aritu zaigu gure korrikalaria. Gora ta gora.



BALLENEROS KALEA, 12-1. A - 20011 DONOSTIA

TELF. 943 - 46 69 06 / FAX 943 - 46 68 94


- ITZULPENAK
- HIZKUNTZ MAILAKETA-FROGAK
- DOKUMENTAZIO-ZERBITZUA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Arrasate, musikaz blai

Beno, bai, pasatu egingo nintzen, musikaz blai esatea agian askotxo esatea izango da, blai eginda gelditzeko asko behar bait da, berdin euria, izerdia edo musikaz bada. Baina, izan ere, eskasiaren ondoren datorrenak beti ere flash handiagoa eragiten du, bakantasunaren ondoko multzoa multzoago da. Eta Arrasaten ez gaude, hain zuzen ere, kortxea eta dezibeliozko jarioetara ohituak, egia esateko.

Horregatik diot, ba, agian nirea pasada izango dela, baina datorrena ere ez da makala, ez pentsa gero. Beno, datorrena eta dagoeneko etorri dena, ze denbora gutxian *Stiff Little Fingers*, *Oyster Band*, *Lertxundi*, *Hertzainak*, *M-ak* eta *Zarama* etortzea ez da normala, edo behintzat ez da orain arte normala izan. Keba!

Eta datorrena? Ba, aperitibo moduan *Godfathers*, heldu buztane-



tik! Bai, "birth-school-work-death" oihukatzen zuten haiek, beraiek in person. (Bai, bazekiat hau irakurtzen ari haizenean emanaldia pasata dagoela, azkarroi, baina nik aurretik idatzi behar diat eta ez diat tranpatan hasi nahi; pentsa, adibidez, zerbaitengatik jaialdia suspenditu egiten dela eta ni hemen -a zer ridikuloa!- oso ondo egon dela, etab. eta hi farrez...) Hori, tipo haiek datozela, eta oso inportanteak direla, orain pare bat urte danbateko indartsua eman ondoren, Donostiako beste olatu haren antzera.

Martxoan, berriz, ladies and gentlemen... *Psychedelic Furs!* Eta bost axola dit orain ea punkaren osteko iluntasunetik pop komertzialera doan bide hori koherentea den ala ez, nahi duenak albokoarekin diskutitu dezala auzia. Nik diodana da talde hau ere inportantea dela, orain arte Arrasatera etortzen ez ziren horietakoa eta gauza ona dela talde inportante hauek ikustea, desmitifikatzeko besterik ez bada ere. (Ezetz, hi, ez dudala derrigorrez desmitifikatu behar direnik esan nahi, lasai)

Total, badirudi Arrasate kontzertuen zirkuitu iraunkorren sartu zaigula, eta segurutik oraingo martxa honek jarraitu egingo duela. Beraz, pasada bai, baina ez hainbeste. Oraindik ez, baina laster Arrasate musikaz blai.

Mikel Irizar

MAHAINGURUA

Gaia: "NOLAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA NAHI DUGU?"

Hizlariak: ANTON IZAGIRRE (HBko Mahai Nazionaleko partaidea).
PILAR ETXANIZ (EMKko partaidea).

Moderatzailea: JOSU IZQUIERDO (San Andres eskolako irakaslea).

Eguna: MARTXOAK 1, OSTEGUNA.

Lekua: Monterroneko hitzaldi-aretoan, arratsaldeko 7etan.

Antolatzailea: AED Elkarte.

OHARRA

Mahal Ingurua egiteko EAJ-k eta EE-k ez dute parte hartu nahi izan HB-k parte hartuko zuelako; EA-k, aldiz, beste arrazol batzurengatik euren ezin etorria jakinarazi digu.



ESKAITZA
ERREBELATUAN:
%20 BEHERAPENA
EDO KODAK EDO AGFA
ERROILU BAT DOHAINIK

IKATZ

ARGAZKI ETXEA

ZURE ARGAZKIAK ORDUBETEAN

¡HAUTERI HAUTAN ZURE
DISFRAZEKIN IKATZ-ek ARGAZKI
BAT OPARITZEN DIZU!!

★ Ez ezazu galdu!!



(K)90

DISFRAZA ZAITEZ!!

ASTEARTEAN, IHAUTERIAN BILATUKO ZAITUGÜ

IKATZ

ESTIBALIZ ETORB. 2
TFNOA 270922.
GASTEIZ

• ITURRIOZ. 8. •
ARRASATE

• DENDARABA
MERKATAL ZENTRUA
GASTEIZ

Hitzak prestatuta hartzeari buruz zertxobait

Euskara, bere hitz-ondarea aberastu eta zabaldu beharrean dela ezin dezake inork uka. Mendeetan zehar hizkuntza hau landu gabe edo gutxi landua egon da, idatzizko zereginetan gutxi eta berandu erabili da.

Baina, gure hizkuntza den konzientzia hartu dugula esan dezakegu. Eta gure hitzkuntza denez, landu eta zaindu beharra dugu, eta, jakina, erabili. Beraz euskarak bizi nahi badu, XX. mendeko gizarte herritarrak behar duen bezalako tresna izatea lortu behar du. Euskara erabiltzeko bait da, komunikatzeko tresna.

Tradizioz heldu zaion hitz-ondareaz nahiko ez duenez, nola erremedia dezake euskarak hitz kontuan duen gabezia? Hiru bide ditu, eta Euskaltzaindiak hirurak proposatzen ditu:

— Maileguak: beste hitzkuntza batzuetatik hitzak hartzea esan nahi du. Gehienetan latinetik hartzen dira.

— Hitz-elkarketa: bi edo hiru hitz

elkartuz hitz berria sortzea, adib: eginbehar=egin + behar.

— Eratorpena: hitz bati atzizkia edo aurrizkia jarriz hitz berria sortzea, adib: ikusgarri=ikus+garri.

Hitz berriak sortzeko hiru bideetatik bat bera ere ez zaio ukatu behar, denon beharrean da eta.

Aipagarria da gai honi buruz Americo Castrok zioena: *"Euskarak, behar dituen hitz guztiak bere baitatik sor ditzakeela pentsatzea Nerbioi ibaiaren ur guztia hiruzpalau pitxerretan sartu nahi izatea da"*. Honekin zera esan nahi du Americo Castrok: euskarak hitz gabezia handia duenez, ezin dituela guztiak sortu hitz-elkarketaren eta eratorpenaren bidez, beste hitzkuntza batzuetatik hitzak hartu beharra duela.

Maileguzko hitzek euskal hitz bihurtzen dira

Nork esango luke "errota" hitza ez dela euskal hitza? Balea, gurutze, libu-

ru, errota, luma, damu, oilo hitzak, eta hauek moduko beste hainbat, maileguzko jatorri jakinekoak izan arren euskal hitz arruntak dira aspalditik, horrelako hitzak euskarak bere baitara bildu eta gure hizkuntzaren arauetara egokitu beharra izan zuen eta. Jatorrizko hitzen mendez mendeko bilakaera fonetiko berbera izan dutenez, itxura guztiz euskalduna hartzea iritsi dira.

Eta jakina, beste hitzkuntza batzuetatik hitzak hartzea oso arrunta da hizkuntza guztietan ere, kantitate handiagoan edo txikiagoan hartzean dago ezberdintasuna.

Dena dela, hitzak sortzerakoan beste erremediorik ez dagoenean bakarrik jo behar da maileguetara. Baina behin hartuz gero, beste edozein hizkuntzaren hitzunek maileguak erabiltzen lotsatzen ez diren bezalaxe, geuk ere burua ondo tente dugula erabiliko ditugu.

Atalataikoan



GIPUZKOA

HERRI Irratia

Nerabezaro edo adoleszentaroa (II)

Arteriosklerosiaren agerraldi klinikoak adin helduetan ikusten badira ere, arrisku-faktoreak haurtzaroan eta nerabezaroan agertzen direla argi eta garbi dago; are gehiago, zain gorrien gaitza bizitzaren lehengo hamarkadan hastea litekeena da.

Nerabezaroa aldaketa haundiko garaia dela denok dakigu, aldaketa hauek bigarren hamarkadan zehar iraungo dute eta ez dira fisikoak bakarrik izango, baita psikologikoak ere.

Adin honetan, hormonen eraginari esker, emalketa-organoak eta sexu ezaugarriak, bigarren mailakoak ere, gero eta azkarrago joaten dira agertuz. Hazkundearen abiadura handitu egiten da eta honek zerikusi handia izango du aurrerantzean

gorputzak izango duen neurri eta itxurarekin ere; orain agertuko dira identifikazioko joera psikologikoak, eta pertsonalitatea indartuz joango da; guraso, familia eta gizartearekiko erlazioa ere finkatzen da.

Gaur egun, kolesterol eta tentsio arterialaren mailan, badakigu haurtzaro eta nerabezaroan gertatzen diren aldaketek gero zerikusia izango dutela eta kontutan izan beharko direla.

Hamarkada honetan (10-20 urte bitartean) ohitura suntsitzaileak ere finkatzen dira: tabakoa, alkohola, geldikortasuna (sedentarisismoa)... Urteekin tentsio arteriala neurri batean gora doala egia da, baina erretzen dutenak, edaten dutenak, etab. gero eta gehiago direla ere ezaugarriekin batera garatzen direla esan genezake.

Gero eta gehiago, Mendebaldeko herrialde guztietan azkeneko boladan, prebentzio-plangintzak ugartzen ari dira gaitz kardiobaskularrei aurre egiteko, gure gizartean heriotzaren lehenengo zergatia bait dira. Baina plangintza hauek oso garestiak dira lan aldetik eta diru aldetik, batez ere berauen errendimendua eta efikazia ez delako nahi litzatekeen bezain ona izaten.

Aurrerantzean, hobekuntza ez da hainbeste egongo pertsona helduekin prebentzio-lan hori egitean, baikik eta arrisku-faktoreak gero eta gutxiago ager daitezten lan egitean, eta honetarako adinik aproposena nerabezaroa da, durarik gabe.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*

URREZKO 8 ARAUAK

ETXEBIZITZA EROSI EDO SALDU BEHAR DUTENENTZAT



1. Eskain-eskari merkatu handia izan
Oso garrantzitsua da erosleentzat salgai dauden etxebizitza gehienak aztertu ahal izatea eta jabeentzat erosleak informazioa jaso dezaten.




2. Kolaborazio espezializatua bilatu
Aholkulari espezializatuaren lana, nahitaezkoa da etxebizitzaren salerosketak dauzkari aspektu guztiak ezagutzeko.



3. Segurtasun-neurriak bilatu
Disgustu bat baino gehiago ekiditeko (ebitatze-ko), zamak, hipotekak, bahiturak, morrontzak, etab. ezagutzea, ordainketak kontu abalaturatuegitea, eta nori zabaltzen eta erakusten dion etxea jakitea.



4. Ondorio fiskalak aztertu
Fiskoarekin topo egin gura ez baduzu, aukera desberdinen ondorioa aztertu, etxebizitza erosi edo saldu baino lehen.



5. Behar den denbora inbertitu
Eta ez gehiago. Erosleek, informatizazioaren bidez, "bat-batean" ezagutzen dute. Hauek merkatua eta planoak, giltzak, etab. daukate. Jabeek ez dute gestioari egin behar Erakunde, Kutxa, Notari, Erregistroetan...



6. Aldez aurreko balorazioa egin
Saltzeko zein erosteko, merkatuko benetako prezio egokia eta ondo jakitea komeni zaizu.



7. Finantz alternatibak aztertu
Eta salerosketen-kontratu bati erantzuteko kreditu eta subentzio-alternatiba desberdinak zehaztuz mehatz ezagutzea eta mesedegarriena aukeratzeta.



8. Kontu handia jarri kontratuan eta eskrituran.
Kontratu on bat saltzaile eta erosleentzat, bien-tzako, garantia da. Garrantzitsua da, halaber, legez tramite desberdinak eta bere kostuak ezagutzea: eskriturak, BEZ, notari-gastuak, erregistro-gastuak, gainbalioa, etab.

Guzti hau geure bulegoan konponduta izango duzu, talde profesional batek abalaturik.

Makina bat bazter ezagutzeko Euskal Herri txiki honetan!

Hauxe izan zen aurreko Otsailaren 11n Besaide M. Elkartearen eskaintza aprobe txatu genuenok sarritan komentatu genuena. Izan ere, ezagutu genuen parajea, ezezaguna bezain ederra iruditu zitzaizgun.

Azken gau-txoriak erretiratu gabe zeudela hartu genuen autobusa Garibain eta Amurrio ondoan dagoen Lendofio-Goikoa herrixkan hasi ginen hankak berotzen. Bai aguro berotu ere, Udalaiz-ek, berak, duen aldatz-gora baino gogorragoa iruditu bait zitzaizgun Tologorrira (1.066) eramán gintuen senda. Baina merezi izan zuen, hamarretakoa bitartean Tologorrik eskeini zizkigun ixiltasuna eta paraje ederrak gure gorputzak baretzeaz gain, aurrez botatako izerdi eta putz guztiak ahaztea lortu zuen eta.



Tologorritik Angulo porturaino joateko Sierra Salvada zeharkatuaz erratu genuen basa-bidea oso lasaia izan zen, eskumatara begiratuaz gero, sekulako amildegiak eta Aiara bailara genuen behealdean; ezkerretarantz begiratuaz gero, ordea, Burgosekin muga egiten duten lur siku eta amai-gabeak. Bost ordu luze iraun zuen

ibilaldi honetan Arrasatetik joandakoak kenduta, bi pertsona bakarrik ikusi genituen; eta beste tontor bat egin genuen, Eskutxi (1.178), hain zuzen ere. Karrozenak (Besaideko lehendakari-orde ohiak, etab.) azkarrago ibili ziren eta honetaz gain, Ungino eta Peña de Aro tontorrek zapalduta agertu zitzaizkigun ordu biak aldera helmugan.

Burgos eta Bizkaiarekin muga egiten duen Artzenian gan bazkaldu eta bazkalostekoak hartu ondoren, ohizko giro jator eta zaratatsuan itzuli ginen herrira, hain gertu eta, aldi berean, hain urruti geratzen zaizkigun Arabako hainbat lur deskubritutako zentzazioaz. Izan ere, Besaideko irteerek makina bat bazter ezezagun ezagutzeko aukera ematen digute.

Hankamotz

ZANKO IKASTAROAK



1. Ikastaroa: martxoak 17 eta 24.
2. Ikastaroa: martxoak 31 eta apirilak 7.
3. Ikastaroa: apirilak 21 eta 28.
4. Ikastaroa: maiatzak 5 eta 12.
5. Ikastaroa: maiatzak 19 eta 26.

14 urtetik gorakoentzat
Egunean 2 ordu arratsaldeaz
Izena emateko epea zabalik
Plaza mugatuak
Aizpurutxo taldearen eskutik

Antolatzailea:



MARTXOAN

Kultur Ekintza Interesgarriak

ANTZERKIA

- Martxoak 3, *Teatre de l'aigua "COGITO"* Alicante
- Martxoak 24, *Markeline "MUTU LILURAGARRIA"*

MUSIKA KONTZERTUAK

- Martxoak 17, NERTHA
- Martxoak 22, EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

ZINEMA

- THE HIDDEN
- ASUNTO DE MUJERES
- PELLE EL CONQUISTADOR
- CONSEJO DE FAMILIA



ARRASATEKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

ZURE KOTXEA DOHAINIK AZTERTZEA

Arrasateko Udalak, CADEM-Eusko Jauriaritzarekin bat eginda, zure kotxearen zerbitzu guztiz dohainekoa eskeintzen du. Aztertze zerbitzu honek hurrengo puntu hauek arakatuko ditu:

- Nibelen kontrola eta estankotasuna
- Zilindroen konpresioa
- Bateria eta karga zirkuitoa
- Banatzailearen kontrola
- Esekidura
- Direkzioa
- Pizteko sistema
- Ihes-gasak kontrolatzea
- Erregaiaren kontsumoa
- Pneumatikoak
- Gasolina ponpa eta karburadorearen kontrola

Behin aztertzea amaitu eta CADEMen edozein tailerretara joanez gero, azterketan azaldu-tako akatsak konpontzearen lan-eskuaren %30eko deskontua izan dezakezu.

Zure kotxea puntuan jarri baino ez eta erregaia aurreratuko duzu, ingurua gutxiago kutsatuko, zure berebilak luzaroago iraungo du, eta zirkulazio-segurtasun handiagoa izango duzu.

KOTXEAREN AZTERTZEA:

Tokia: E.J.E. eraikin zaharreko udal biltegian (Errekalde kaleko sarreratik)

Egunak: 1990eko martxoaren 5etik apirilaren 21era.

Orduak: 10etatik 1etara eta 3,30etatik 6,30etara lanegunetan.


10etatik 2etara larunbatean.

Aste gazte

Gizartea kontzientziatu behar dago, alde batetik, gaztea gal-nestimulatzen duela eta, bestetik, bere beharrian sexualak asetzeko eragozpenak jartzen dizkiola.

Ez da eskaltzen ez programarik ez alternatibarik gaztearengan Sexualitatearen ikuspegi zabalago eta positiboagoa sortarazteko.

(Gipuzkoako gazteen sexualitateari buruzko txostena)



Prezioa: 11.000 pta.

• *Orientazioa.*

Datak: Irailak 22, 23, 29 eta 30

Maila: hastapena.

Prezioa: 15.000 pta.

• *Mendirako sarbidea:*

Datak: urteko asteburu guztiak, eskola-oporraldiak ezik.

Zeintzat: B.B.B., UBI. eta L.H.ko eskolariak.

Prezioa: 2.000 pta.

sika. Iraupena: urtebete. Hilean 1.600 dolar. Epea: 90-5-4.

Ikerketa zientifiko eta teknikoak Espainian egiteko dirulaguntzak. Gaiak: gaixotasun kardiobaskularrak, neurozientziak, immunologia, nekazariatz, ingurugiroa. Epea: 90-4-25.

Lehiaketak

* "GAZTE IKERTZAILEAREN III LEHIAKETA". Gaiak: Produzio eta komunikazioaren teknologia, Agroelikadura eta baliabide Naturalak, Bizitzaren kalitatea eta Arlo Soziokulturala. 2 Kategoria: 15-18 urtekoentzat eta 19-23 urtekoentzat. Epea: 90-2-28.

Apirileko bidaiak

* 26 urtetik beherakoentzat edo 30 urtetik beherako ikasleentzat:

• Paris-Londres: 9 egun, bus+itsasontziz 32.550 pta.

• Paris-Herbehereak: 9 egun, busez 29.650 pta.

• Portugal: 5 egun, busez 11.200 pta.

Ikastaroak

Zanko luze ikastaroak: Martxoaren 17an hasita, bi larunbateko 5 ikastaro (eguneko 2 ordu). Izena emateko epea zabalik. Plaza mugatuak. 14 urtetik gorakoentzat.

Gipuzkoako Goi Mendi Eskola:

• *Alpinismo ikastaroa.*

Datak: Maiatzak 5/6 eta 12/13

Mailak: hastapen eta hobekuntza.

Prezioa: 11.000 pta.

• *Haitz eskalada.*

Datak: Apirilak 28, 29, 30 eta Maiatzak 1.

Mailak: hastapen eta hobekuntza.

Bekak

* *Gizarte-eskubideari buruz ikasketak zientifiko eta juridikoak egiteko 20 beka (Europa Kontseilua). Gehienez 12 hilabeteko iraupena. Unibertsitateko titulua eta ingeles edo frantses jakin behar da. Diru-kopurua: 5.000-15.000 libera frantsesak (irau-penaren arabera). Epea: 90-3-15.*

* *1990/91 ikasturtea atzerriko Unibertsitate eta Ikerketa zentruetan ikasteko beka.*

Ekonomia eta Europako Komunitateen Zuzenbidea. Iraupena: urtebete edo bi. Hilean 1.400 dolar. Epea: 90-4-16.

. *Biomedikuntza, Kimika eta Fi-*

BERTSO-AFARIA AED ELKARTEAN

Bertsolari gonbidatua: SEBASTIAN LIZASO

Eguna: MARTXOAK 2, OSTIRALA, gaueko 9,30etan.

Prezioa: 700 Pta.

Apuntatzeko: AED Elkartearen edo 79 54 46 Tñoan (AED).

Izenak emateko epea Martxoak 1, osteguna, izango da.

Giro jatorra ziurtatuta dago, animatu eta etorri!



ARRASATE HARATUZTEAK-90

Igande honetan, otsailak 25, eguerdiko 12,30etan eta Sebero Altube Plazan,

TAUPADA Antzerki taldearen eskutik,

ANTZERKI-ANIMAZIOA HAURRENTZAT.

Oso ondo pasatuko duzu, etorri Igandean Seberora!



ETXEBIZITZAK

- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Asteguntan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuak deitu 79 62 89 tfnora.
- Neska behar da Bilbon pisua konpartitzeko. Tfnoa: 79 98 30
- Errentan erdialdean pisua osatzeko pertsona behar da. Gela izango luke. Tfnoa: 79 51 49 eguerdian edo gaueko 11etatik aurrera.
- Musakolan etxebizitza salgai. Tfnoa: 79 36 93. Ramón.
- San Andresen garajea alokatu edo erosiko nuke. Jabier 79 50 53
- Bi neskak tokia behar dugu Bilbon, pisu konpartituan. Deitu 79 26 62 tfnora.
- Bikoteak errentan hartzeko tellatupe edo pisu txikiren bat nahi genuke. Tfnoa: 79 81 76
- Aramalo kalea 4, etxabeen etxebizitza salgai. Deitu 795521 tfnora.
- San Andresen etxebizitza salgai. Errebuelta kalea 8-3.D. Telefonoa 799718.
- Konpartitzeko pisu bila. Deitu 793900 tfnora, gaueko 10etatik aurrera, edo (948) 243195 tfnora edozein ordutan. Blankaz galdetu (ATS).
- Errentan pisu txikiren bat edo tellatupea hartuko genuke bikote batek. Ez digu axola hutsik bada ere. Tfnoa: 798176

LANA

- Umeak zaintzeko neska euskalduna behar da. Deitu 79 81 61 tfnora.
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Tfnoa: 79 97 52 (deitu goizetan, larunbat eta igandetan)
- Ikasle arduratsuak bulego edo antzekotan lan egingo luke. Tfnoa: 79 39 84 (arratsaldeko 6etatik 7etara)
- Disko-pub-kafetegietan esperientziadun kamarera lan egiteko prest. Itxura onekoa. Tfnoa: 79 70 41 (Teles)
- Umeak edo pertsona zaharrak zaintzeko prest (gauetan eta asteburuetan) Tfnoa: 79 28 30
- Neska euskalduna O.H.O.ko haurrei klase partikularrak emateko prest Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera 79 64 82 telefonora.
- O.H.O.ko klaseak ematen dira. Tfnoa: 79 26 19 (Itziar)
- Emakune euskaldunak umeak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 07 73.
- Bi emakume euskaldun behar dira asteburuetan erretegi batean lana egiteko. Deitu tfno honetara 76 22 68
- Behar dira: sukaldari laguntzaillea (barra zerbitzuan lanean dakiena) eta sukaldaria. Tfnoa: 79 17 86. Eguerdikoz 2etatik 4etara eta gaueko 9etatik aurrera.
- Emakume gazte eta arduraduna lanerako prest. Tfnoa: 797736
- Lehengo REM kurtsorako irakaslea hartuko genuke egunean bi orduz, klase partikularrak emateko. Interesatuak dei: 79 59 08 (Marilu)
- Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. Tfnoa: 79 73 83

SALEROSKETAK

- Sonab markako anplifikadore-digitala salgai. Tfnoa. 79 29 09
- Akai markako pletina salgai. Tfnoa: 79 29 09
- Panagor markako zooma salgai, 55-225 mm-koa. Tfnoa: 79 45 39
- Orbea "Deba" paseorako bizikleta. 5 pinioi. 8etatik aurrera, 79 99 82
- Commodore 64 salgai. Berria. Assembler Tutor eta guzti. 25.000 pta. Tfnoa: 79 81 14. 9etatik aurrera.
- Janet markako haur-kotxea salgai egoera onean. Eguzkitakoa eta euritakoa doan. Dei egin 79 91 77 tfnora.
- 4 urteko 10 behi saltzen ditut. Ernai daude. Mendikoak. Amutxastegi Zaharra baserria. Basalgo auzoa. Bergara
- Vespa-200 motorra salgai. Deitu 79 24 66 tfnora. Aitor
- F-301 NIKON argazki-kamara salgai. 50 m m, 70 - 150 m m, 28 - 105 m m. Tfnoa: 796495
- Primeran dabilen R-12 txuria salgai. 9 urtekoa. BU-F. 125.000 km. 200.000 pta. Kike. Tfnoa: (945)24 96 01. Goizez.
- Seat 127 kotxea salgai. Matrikula SS-7330-F. Tfnoa: 79 75 67
- Zubi-logela salgai. 90 zentimetroko bi ohe; luzera 3,45m. Goiera 2,20m. Idaztegia ere badauka. Tfnoa: 79 80 08

DENETARIK

- Botatzeko duzun ofizina mahal hori gustora jasoko nuke zure etxera joanda. Dei 79 21 35 tfnora.

ARRASATEN HILDAKOAK

Juan Francisco Murillo Rajado
Otsailaren 14ean. 82 urte

Rosario Rodriguez Cabrera
Otsailaren 15ean. 80 urte

Amaia Gordobil Zeziaga
Otsailaren 19an. 54 urte

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Famauen ahotik

Luis Heriz, denpora batetako alondigerue



Luis, zigarrue ezpanetan daukena

Ofiziue familixatik

Alondigie lehenengo euki juan aittejaunek gero aitek eta azkenengo neuk. Aiuntamentuen behien jauan eta oin Alonson zapaterixie dauen lekuen, han be almazena egon zuan eta han egoten zittuan honeik bokoiek, barrika haundixek, eta gero ba, gerra ostien razionamentue egon zanien patata, olixo...danetik. Horreik danak geuk ebaltzen gittuan eta estaziñuen hartu, alondigara ekarri, pixetu eta taberna, denda eta alde guztietara errepartiruten gittuan.

Karriuek zaldixaz

Jeneralien ardauek zahagixetan ekarten zittuan eta hareik zaldixaz errepartiruten gittuan. Zaldi ona gaukan guk eta gobernau be ondo eitten gaixuan. Lau erruberako karrue ibiltten gaixuan, burdinazko llantadune. Azkenien, danai itxi-te fabrikan hasi nitzenien, desmontau naixuan eta oin etxakixat nun izengo dan.

Gero, bokoiek pe ekartzen zittuan, 800 litroko barrikak, eta hareik alondigatik Zerrajerako ekonomatora bultzeka-bultzeka erueten gittuan, Portaloien behera tripiaz euntsiñaz-euntsiñaz.

Zahagiko ardaue ona

“Zahagixe ardauentzako oso ona dok. Uxe ona euki ezkeru, zenbat eta denpora gehixauen egon orduen eta hoba. Mejorau eitten dok”

Ardau eta likorei hainbesteko bat kobrau

Zahagiko hainbeste kobretan gaixuan eta likoriei be sellue jotzen jaien eta kobretan zuan ba... huskerixa bat, bost erriel. Hala be egoten zittuan tranpak: hori ez pagetaaren ba, Aramaixotik eta ekarten jittuen batzuk. Baiñe bestela obligaute jazan danak handik pasetako. Gu handixik bizi gitzuan, gu ez gitzuan Aiuntamentuko enpliauek.

Kaliaz gobaitt eindde

Kalien gaztetan zerbaitt, lana astuek moruen eindde, tira, baiñe behin edade batera ezkeru... Hola jai inguruetan eta ez gaixuan lorik pe eitten, gau ta egun lanien. Eta gero zelako kargak eta zenbat astokeixa... Zahagixek-eta 142 kilokuek eta, besapeien ibiltten nittuan. Gero matadeixatik, fabriketatik... karriuen geratu be ein barik ibiltten gitzuan gu. Gero erdixetan erasandute, baiñe jarri horretaiko pegau gorrixetako bat eta aurre-ra.

Jentiaz tratu ona eukitten gaixuan baiñe desietan ninguan ni kalie ixteko. Oin dala 27 urte inguru ero dana itxi te Amaten sartu nitzuan.
Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

Gau baten sartu ei zan Artadi medikua Gila-neko tabemara kafe bat hartzera eta kuadrilla haundi bat topau ei eban orrua baten kantuan. Hango zaratiak, burrundariak eta zarrapariak ez ei eukan akaburik.

Kuadrillakon bat konturatu ei zan Artadi jauna haserre samar zeguana eta gauzia leundu nahitta joan ei jakon esanaz:

- Artadi jauna, faltatzen gare?
- Faltatzen ez, sobratzen zarete.

■■■■■■■■■■


Bizkai aldetik etorri eta tabemia zabaldu eban Plazentzian. Baiña oinddio etzeukan gaitzizenik eta hori bihar biharrezkua eban herriko- seme bihurtzeko.

Andria Asun zan, emakume dotoria. Gizonai, Mendatakua zanez, “Mendata” jarri zotsen probisionalmente. Ogi faltaz ona ei da artua, eta zorioneko izen hori ipiñi egin bihar ba...

Egun baten bolo-bolo zabaldu zan “Fakirra” zala. Mendata giza-juak etzeukan ontzat hartu baiña. Badakizu ba... tabemako bezeruak pe bazien da. Asun bere andriak pe etzeukan aguantau beste biderik. Berak pe laster entzun bihako eban “fakirresia”. Eta herri guztia Fakirra deitzen hasi jakon gizonai. Etzan hain argala fakir itxuria eukitzeko baiña...

- Ez jakin batek preguntau eban:
- Mendatai zergatik deitzen jotsek Fakirra?
- Asunekin lo eitten dabelako.

Juan Martin Elexpuru



EGIDO Ordezko Piezak


Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerías, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



Miguel Angel Heriz Anoetan, 1966

M

ondragoeko Juventud Deportiva kirol elkartea 1943ko ekainaren 1ean jaio zen, On Jose Maria

Arizmendiarietaren eraginpean. Harez geroztik, eman izan du fruitu ederrik, aste honetako Fotozaharrera ekarri dizuegun hau bezalakoa.

Miguel Angel Heriz abiadura-lasterkaria zen, 100 m., 200 m. eta 4x100 m. korritzen zituen. Abiadura lasterketak maite zituen gehien, eta hurbiletik ezagutu zutenek sekulako ahalmenak zituela aitortu digute. Tolosan korritu zuen lehenengo aldiz. Juventud Deportivaren elastikoa aldean eraman, bere kasa joan eta irabazi.

Gipuzkoau lan abiaduraren artean zegoen lehia gogorra: Elgoibarko Irundegi, Bergarako Eloi, Tolosako Sala eta gure morroskoaren artean. Askotan lehiatu ziren elkarren kontra, denetariko emaitzekin.

Miguel Angelek Eskola Profesionalean ikasi zuen. Maestriako bigarren kurtsoa bukatu, elektrizitate adarrean eta Elektronikan hasi zen lanean, egun erdiz.

Argazki honetan 19ren bat urte izango zituen eta 108 kilo. Urtebete beranduago, 1967ko abenduaren hamazazpiaren goizaldean, Aretxabaletatik beste hiru lagunekin (Periquin, Askasibar eta Huizi) berebilean zetorrela, Bolintxo okindegiaren parean, arbola baten kontra jo eta bertan hil zen. Hantxe itxi zen Juventud Deportivaren historiaren kapitulu eder bat.

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate

Hitz gegidunak

Ausart Aztarna tokia	Hala ere Ikuliak	Baberrun Kontsonan- tea	Jungatu Uztai	Ahita Zurzapena	Musika nota Bi
Ohil Apoak		Herenage Azkenekoa			Aurkitzale
			Iridioa Atzikia		Potasioa Ospai
Jardun Erromatarren jolastokia		Amitina Ussina			
			Ikaratu Lista		
Titanioa Ikertu	Roetigen Txori hiltzale	Lehergai Eta		Islandia Ospai	
			Nahikoa Barazkiak		
Arbola mota	Korta Abiagune		Zapo Bat		Kontsonan- tea Ogiagaztza Anderedera
			Delturaz Iradiazio unifikatza		
Aurpegiko le Toka, dut			Txori mota Iridioa		
		Zangoeren partic Pare bat		Bizkaiko autotlan Boroa	
Bukarea Opus				Bidu, (infl.) Hodeienako ur	
	Europako ibaien Suzur darioak		Musika nota Bokala	Necoa Kontsonan- tea	
Ukita (infl.) Nire		Bizk. jarritu Bokala			Bizk. du
		Zibarra Kontsonan- tea	Zakur mota Musika nota	Kontsonante bikoitza Kontsonante bikoitza	
Jatorri atzikia Dentak		Emates Oxigenoa			
	Ongi			Serdina Bakala!	

Soluzioak

L	V	A	L	K	I	N	O	K	D
V	L	E	V	M	E	R	V	R	T
D	O	R	D	A	G	O	R	E	N
T	U	T	U	I	T	A	I	U	K
N	E	R	E	R	E	R	I	N	O
I	L	B	I	A	B	E	R	A	V
B	I	V	A	T	O	I	N	A	V
B	I	Z	A	R	E	N	A	R	V
H	A	G	I	N	I	Z	E	N	E
T	O	A	P	O	E	H	I	A	V
I	S	K	I	A	S	K	I	A	S
I	S	T	I	R	T	N	T	I	S
U	T	U	T	U	T	U	T	U	T
V	A	R	I	K	U	V	A	R	I
V	A	R	I	K	U	V	A	R	I
K	E	T	Z	A	K	I	R	K	E
O	I	A	G	O	I	A	G	O	I
V	A	R	N	A	T	E	G	I	V
L	E	A	V	A	L	E	A	V	A

ENBIDotik hartua, ELKAR-en baimenarekin



ERANA AHOLKULARITZA

Orotarako aseguruak

Kontzeilño kalea 4, etxabea Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

Eta bapatean gaua

Ed é subito sera
Salvatore Quasimodo

Bizitza hiltzen ikustea da, horixe da zahartzea,
herio usain likatsu, tematia,
zenbait hitz -alperrik- errepikatuaz batera,
oskol lehortuak, beira kraskatuak.
Besteak hiltzen ikusi, benetan
maite izan dituzun bakanak,
birindurik, deseginak, zigarro honen bukaeraren antzera,
aurpegi eta keinuak, irudi erraustuak, paper ximurtua.
Eta zeure burua ere hiltzen ikusi,
errauts hoztuei, xilueta ezabatuei,
amets formagabeei eraginez, memoria zikindua.
Bizitza hiltzen ikustea da eta materia hauskorra
eta bagenekien dena eta ez zen engainurik,
baina haragi eta odolak, jario misteriozkoa,
iraun guran dabilta, ezinezkoa baieztatuz.
Kopa hustua, dardarka pultsua, zikin hautsontzia
iluntzearen argi lausotan.
Bizitza, hiltzen ikustea, ez da ezer ikasten,
dena errukigabeko sentimendua,
urteak, hitzak, azala, samurtasun pitzatua,
herioaren bero jelatua.
Bizitza da hiltzen ikustea, ez gaitu ezerk babesten,
ez du ezerk atzokorik izan, ezerk biharamonik,
eta bapatean gaua.

Juan Luis Panero
Y de pronto anochece,
Península, Bartzelona, 1985.

ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa:79 16 04



BOLINTXO

kirolak

Ibargarai 10, BERGARA

■ **Goiz kronika:** Albiste saio guztietan, zaila izaten da ondo informatzeaz gainera, programari bere nortasuna itsastea. Euskadi Irratiko *Goiz Kronikak* nik esango nuke lortu duela nolabaiteko minimoa Arritxu Iribar eta Antton Aranbururen inguruan dabilen taldeari esker.

Gaur, dena den, iragan ostegunean entzunendakoa komentatu nahi nizuke. Oroitu, egun hartan Gasteizko Legebiltzarrean Autodeterminazioari buruzko eztabaida zegoela. Herri kanta ezaguna parafraseatuz, horrela eman zion hasiera Antton Aranburu esatari bertsozaleak zortzietako albiste eman-kizunari:

“Kurrukuku, zer diozu?

Proposamenak biltzen.

Proposamenak zertarako?

Eusko Legebiltzarrera eramateko.

Eusko Legebiltzarra zertarako?

Autodeterminazioa onartzeko.

Autodeterminazioa zertarako?

Gu guztiok zabaltzeaz gainera, otsailaren 15eko albistegirik nagusienen kontakizun hau kontatzeko”.

Ikaragarri gustatu zitzaizkidan. Esateko modua mezua bera bezain garrantzitsu bihurtzen ari den honetan, Antton Aranburuk goizero erakusten digu horretan duen aiotasuna.

■ **Hitzetik hortzera:** Ostegunean Funtzioren entseinua ikusten ari ginela, Joserra Gartziarekin egin genuen topo. Emaztea eta semearekin zegoen Xabier eta Peteren graziak gozatzen.

Animatuta aurkitu genuen. Lan egiteko bitarteko eta baldintza eskasak dituen arren, errealtzatzailer bat lortu dute, aurrerantzean lana era txukunagoan egin ahal izateko.

Bestetik, abenduan egindako audientzia neurketek diotenez, hil horretan Hitzetik Hortzera saioak 40.000 ikusle lortu zituen batz bestea. Kontuan hartuta darabiltzaten aurrekontu eta bitartekoak, emaitza harrigarria benetan. Animo Joserra, eutsi goiari!

■ **Pilotari anteojuduna:** Ez nion kasu handirik egin bi-bitako eskuzko finalari, egia esan ordu horretan logureari eutsi ezinik ibiltzen bait naiz, baina xehetasun batek eman zidan atentzioa. Lehenengoz nire bizitzan, goi mailako pilotari anteojuduna ikusten nuela, Etxenagusia errezildarra.

Neu ere pilotaria ez, baina begi estraren laguntza behar duten horietakoa izanda, harriduraz ikusten nuen pilotakada izugarrien artean nola behin eta berriro eramaten zuen hatzamarra sudurrera irristatzen zitzaizkion betaurrekoak beren lekura altxatu guran.

Geure artean hain normala den keinua, izugarri arraroa egiten zitzaizkidan eliteko pilotari harengan ikustea. Banekien pilotariak ere hilkorrek direla, baina ez betaurrekodunon neurrian.

Joxe Aranzabal




— gusto baduzu —

■ **Kirolak:** Ostiralean, gaueko 11,55etan, Super Match kirol saioa (non boxeo, nazioarteko futbola edo pilota partiduak eskaintzen diren). Larunbatean, 15,20etan NBA-ko saskibaloi neurketa; eta arratsaldeko 8etan, Bartzelona eta Errealaren arteko norgehiagoka, Nou Campetik zuzenean. Igandean, eguerdiko 12,30etan Futbol sala partidua, eta bukatzeko, 18,10etan ACB ligako saskibaloi emanaldia.

■ **Urrundik itzulitako gizona:** Astelehenean, arratsaldeko 19,15-etan emango da telesail honen lehenengo kapitulua. Istorio hau 1910. urtean girotua dago. Ugazaba alargun gazte eta polit batek bi seme ditu, Francois eta Germaine. Halako batean ustekabe galanta jasoko dute: fabrikatik opari berezia jaso behar dutela esaten diete; automobil bat hain zuzen ere.

■ **Lepke:** Menahem Golamek zuzendutako filmea, asteazkenean, gaueko 9etan. Antzesleak Tony Curtis, Anjanette Comer, Michael Callam. Lepkek haur baten historio krudela kontatzen digu. Bere bizitza gogorak Brooklyneko gangster talde baten buru bihurtzera eramango du, eta geroago, EEBBko krimen sindikatuaren buru izatera.

bideoak



Lur lehorraren konkistatzaileak

Lehorreko marinel bilakatzearen arazoak konpondu zituzten lehenengo ornodunak, narrastiak izan ziren. Urte asko pasatu da ordudanik, baina narrastiak ez dira inolaz ere modaz pasatutako zaharkiak edo joandako aro bateko erlikiak. Sorpresaz betetako mundua osatzen dute. Hori egiaztatzeko, bideo hau ikusi baino ez duzu.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala


3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasi-
koa)

Azteazkena


4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako graba-
ketak).



Aste honetatik aurrera gure irudiak jantziagoak agertzen direla konturatuko zarete: Berriak saioak badu bere kareta, letra eta guzti, eta gauza bera ATB-ren anagrama duen kareta orokorra. Aitor Lauzirika, 23, gazte durangarra izan da artista. Magisteritza Eskoriatzan ikasiaz batera, Luis Mari Alvarezen taldean ibili eta informatikan zaletu zen. Amiga 2000 ordenadorean egin du aipatu animazioa.



Hasieran pupitre estiloko mahai txiki horietako batekin moldatu behar izan ziren ATBkoak. Ez gehiago. Azteazkenean Gonzalo Etxebarria eta Pedro Castilla, Duo Diseño etxekoak agertu ziren, albiste saioak eta mahainguruak egiteko mahai eta aulkiak ekarri. Platoak itxura azkoz hobea hartu du.

ATBren programa eta karetei ez zaie sintoniarik falta, ez horixe. Fran Iturbe, 25, musikari bergararrak egin du musika Arrasate Telebistarentzat. Inguruko musika talde desbedinetan ibili eta gero, urtebete pasatxo darama Jo ta kie taldean. Franek gustora egin du lan hau eta ATBkoak benetan pozik utzi ditu.



Otalora 2, ARRASATE

EDERRA

Iturriotz kalea 12, Tfnoa: 79 96 25



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Ondo baino hobeto dakizu noraino iritsi nahi duzun, eta zure merituak ikustarazteko besteak gutxiesten dituzu. Ez izan hain zeurekoa eta txalotu besteen ekintzak.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Lan arazo guztiak gaintitu dituzu gogortasun moral horri esker. Ondo administratu dituzu orainarteko irabaziak, horregatik zabilza hain erosu. Eztarria zaindu.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Aspaldian ez diozu batere jaramonik egin elikadurari eta zure metabolismoa ondo ez dabilen konturatzeko hasia zara. Janari koipetsuak eta alkohola ebizatzen saiatu.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Besteek ez dute ulertuko zure helburen zergatia, baina ez kezkatu laguntza faltarik ez duzu izango eta, erabaki zuzenak hartzen dituzula konturatuko bait dira.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Itxura onez azaltzen saiatzen zara, baina benetan nekatuta eta gaixo sentitzen zara. Sendatzeko erremediorik onena atsedena da Leo.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Eguneroko eginbeharra eta aise denbora rutina bilakatu zaizkizu Virgo. Autokritika sakona egiten saiatu zaitetz, egunerokotasunari alde egiteko irtenbide aproposa bilatuko duzu eta.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Umore txarrez zabilza laguntza luzatu dituzun horrek adarra jo dizula konturatu zarelako. Eziozu hainbeste buelta eman, aurki ahaztuko duzu eta.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Arazo larriak daukazazu aspaldian eta pentsakor ibiltze horrek bakarrik sentiarazten zaitu. Saiatu entzungo dizun norbaiti zure ezbeharrak azaltzen, lasaiago sentituko zara.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Reflejoak motelduta daukazazu azkenaldi honetan, denborarik galdu ezin horrekin eginbehar askotan murgildu zarelako. Ez ahaztu gizaki orok perezarako eskubidea ere baduenik.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Etxean dituzun arazoek zergatiak aztertu ala erabakiak hartu beharrean zaude Kaprikornio. Nortasun gorabehera handiak dituzu. Erne ibili beharko duzu nolabaiteko orreka lortzeko.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra


Dudamudatan daukazazu ideia horiek gauzatu behar dituzu oraingoan, eguzkiak behar adinako jasankortasuna eta ziurtasuna emango bait dizkizu.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Autosufizientea zarelakoan ibiltzen zara beti edonon, eta aurrera egiteko ez duzu inoren beharrik izaten. Noizean behin baino izango ez bada ere, saiatu zaitetz besteen eritziak kontuan hartzen.

AE Elkoro



Zure antena txarto badabil, esaiguzu, konpondu egingo dizugu!

Antena parabolikoak, indibidualak eta kolektiboak konpontzen espezialistak.

Magdalena 27,
Garibai 10,
Alfonso X 6,

Tfnok: 79 18 86 eta 79 45 99 ARRASATE

IKUS-ENTZUN

ZURE HAURRENTZAKO BIDEO DIDAKTIKOAK



BIDEO HAUEKIN

Gizartean bizi gara

Ingurua ezagutzen

Etorkizuna ezagutuz

geureganatu egiten dugu

LASTER ZURE ETXEAN!!!




Okendo 5,
79 26 99 ARRASATE



San Miguel eliza. Garagartza.

Roberto Mendi



FAGOR 

iKER

**SUKALDE
LILURAGARRIAK**

ARRASATE

Bainugela-erakusketa: Zarugalde kalea 52, Tfnoa: 79 99 42
Sukalde-erakusketa: Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43